

Olga Cardenoso Ramírez

Emakumea gizartearen ispiluan, itzala ala sormena?

Giza eskubideak ditugu jokoan

Giza esku**bideak**



DeustoDigital

Pedro Arrupe Giza
Eskubideen Institutua

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

63. zenb.

Emakumea gizartearen ispiluan,
itzala ala sormena?

Giza eskubideak ditugu jokoan

Olga Cardeñoso Ramírez

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2011

ERREDAKZIO BATZORDEA

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Marta Zubía, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Susana Ardanaz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Xabier Etxeberria, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

ARGITATZE BATZORDEA

Anja Mihr, Utrechteko Unibertsitateko Human Rights Centerreko ikertzailea, Herehereak.

Antoni Blanc Altemir, Lleidako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra.

Bartolomé Clavero, Sevillako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako katedraduna eta Indigenen Gaietarako Nazio Batuen Foroko kidea.

Carlos Villán Durán, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea sustatzeko espainiar elkarte.

Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra, Sevillako Unibertsitatea.

Cristina Churruga, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Eduardo J. Ruiz Vieytez, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbo.

Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.

Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.

Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitate Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, Mexiko.

Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.

Joana Abrisqueta, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Bartzelonako Unibertsitatea.

José Aylwin, Giza Eskubideen behatokiko zuzendaria, Temuco, Txile.

José Luis Gómez del Prado, Mertzenerioak erabiltzeari buruzko Nazio Batuetako lan-taldeko kidea.

José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.

Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.

Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Anbereseko Unibertsitatea, Belgika.

Mónica Goded, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.

Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.

Víctor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.

Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarriketarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lau honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak

1 posta-kutxa - 48080 Bilbao

e-mail: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-9830-387-2

*Nire ama
M.^a Ángeles Ramírezentzat
eta nire amama
Felisa Viquerarentzat*

Esker ona

Esker ona erakutsi nahi diet saiakera hau prestatzeko prozesuan lan-kide eta bidelagun izan ditudan lau emakumeri.

Eskerrik asko, lehenengo, Trinidad Vicente Torradori, psikologia eta giza eskubideak lotzeko liburu bat idazteko bere proposamen erakar-garri eta sinkronikoagatik, oraingo teoria psikologiko gehienek gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna garatzeko eginkizunari jartzen dizkioten oztopoetako batzuk ikuspuntu kritikoz lantzeko au-kerira iradoki zidan eta.

Halaber, bihotz-bihotzez eskertzen diot Irene González Mendizabali, pentsamenduak hitz bihurtzeko prozesu ziragarrian lagun dudan emakume jakintsu horri, neure ondoan izatea. Ireneren bizi-jakituriak eta hizkuntza-ezagutza itzelek ukitu aberasgarri berezia ematen diete nire idazkiei.

Ideiak hitzez adierazteko ataza beraren barruan, sakoneko esker ona erakutsi nahi diot saiakera euskaratzeko zereginetan jardun duen Ana Santos Elortza itzultzaileari. Idazki honetan izan duen eragina lan-bidez zegokionetik haragokoa izan da, batez ere nire testu eta gogoe-ten gainean egindako balorazio ona lanean jarraitzeko bultzada izan baita niretzat.

Amaitzeko, modu berezian eskertu nahi dizkiot Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendari Isabel Ariceta Iraolari bere onespren esanguratsua eta emandako laguntza, testua euskarat-zeko diru-laguntza ezin eskertuzkoa tartean.

Aurkibidea

Aurkezpena	13
1. Jean Shinoda Bolen eta arketipoei buruzko bere teoria: emakumeari begiratzeko ikusmolde berri bat	17
1.1. Jainkosa grekoak eta emakumezko arketipoak	17
1.1.1. Jainkosa minberak. Emakume-rol tradizionalak	18
1.1.2. Jainkosa birjinak. Bestelako emakume-izaerak	19
1.1.3. Jainkosa Alkimikoa. Betidanik txarto interpretaturiko Afrodita	20
2. Gure gizartean aktibaturik dauden arketipo patrioiak	23
2.1. Gizarteak eta zientziak jainkosa minberen ezaugarriak aktibatzen dituzte. Giza eskubideen aurkako ezkutuko eraso	24
3. Aktibaturiko jainkosa minberak, Demeter eta Pertsefone, sakon ezagutu nahian	27
3.1. Demeterren eta Pertsefoneren mitoa	27
3.1.1. Demeter. Amaren arketipoa	29
3.1.1.1. Haurtzaroa eta nerabezaroa: «ama txikiak» ...	30
3.1.1.2. Demeter emakumearen helduaroko ezaugarriak	30
3.1.2. Pertsefone. Alabaren arketipoa	38
3.1.2.1. Haurtzaroa eta nerabezaroa: «neskato zintzoak»	38
3.1.2.2. Pertsefone emakumearen helduaroko ezaugarriak	40

4. Gure gizartean Demeter eta Pertsefone aktibatzeneko estrategiak. Sistema patriarkala iraunarazten.	49
4.1. Demeterren arketipoaren arabera amatasuna sustatzen duten gizarte-mekanismoak	50
4.1.1. Bere semearen atxikimendu-eragile bakarra den ama elikatzailerik eta zaintzailerik sustatzea	52
4.1.2. Amatasunak berez dakartzan eta hain atsegingarriak ez diren bizipenak ezkatzea	55
4.1.3. Aitei umeen hazkuntzan dagokien eginkizuna gutxiestea.	58
4.1.4. Beste amatasun era batzuk aintzat ez hartzea	61
4.2. Emakumeengan duntzeilaren arketipoa pizten duten mekanismoak	66
4.2.1. Familiarteko dinamika. Amaren betiereko alaba.	66
4.2.2. Kulturaren pisua. Maitagarrien ipuinetako printzesa.	68
4.2.3. Politika ekonomikoa. Familia eta lana bateratzea eragozten duen galga.	71
4.2.4. Psikologia zientzia. Pertsefoneren berezitasunak eta emakumezotasuna lotzeko joera	75
Askatasun, berdintasun eta elkartasuneranzko bide berriak.	77
Bibliografia.	81

Aurkezpena¹

Adorea, sormena, leialtasuna, bere buruarenganako konfiantza, malgutasuna, nekazintasuna, senetzko argitasuna, bakardaderako joera eta maite-suaren grina emakumeen jatorrizko balioak direla erakusten dituzten irudiak irrikatzen ditugu.

Christine Downing, *La Diosa*²



¹ Liburu hau Ana Santos Elortza andreak itzuli du, eta «Begoñako Andra Mari» irakuslearen Unibertsitate Eskolak diruz babestu.

² DOWNING, Christiane (1999): *La diosa. Imágenes mitológicas de lo femenino*. Editorial Cairós, Bartzelona.

Gaur egun, oraindik ere, teoria psikologiko gehienek, itxurazko neutraltasuna gorabehera, emakumearekin loturiko guztia aztertzeke darabilten ikuspuntua «*emakume izateari buruz uste denaren*» gaineko estereotipo tradizionalak oso baldintzaturik dago.

Emakumezkoa ikertzean eta behatzean, oso teoria gutxi sartzen dituzte, emakumeen berezkozat harturik, tradizioz gizonezkoarekin lotu diren hainbat ezaugarri, hala nola arrazionaltasuna, pertseberantzia edo/eta agintea, gehientsuek tradizioz emakumearekin lotu diren ezaugarriei —harmerari, samurtasunari, menpetasunari...— baino ez baitiete erreparatzen.

Ikusmolde estereotipatu horren eraginez, ikerketak eta, ondorioz, zientzia psikologikoak gizarteari emakumearen gainean islatzen dion irudia guztiz partziala da. Gizarteak, halaber, iraganaldian ainguratu-tako emakume-sinbologia horretaz oraindik kutsatuegi, kontra egiten dio «emakumezkoari» buruzko kontzeptualizazio orokorrean gertatzen ari diren aldaketetako batzuk bere adierazpen anitzetan jasotzeari, nahiz eta aldaketa horiek, berez, dagoeneko ari diren gertatzen, gizon eta emakume batzuen buruetan, bai eta psikologiaren alorrean esku hartzen duten ikertzaile —emakume zein gizon— batzuenean ere. Ildo horretan, esan dezakegu gizartea eta zientzia, euren ikuspuntu atzerakoienez atzeraelikatzen ari direlarik, gizonen eta emakumeen berezko errealitatearen beraren atzetik doazela.

Dena dela, lehen aipatu dugunez, zientziaren eta ikerkuntzaren eremuan, gero eta begirada berri gehiago ageri dira. Horietakoa dugu Jean Shinoda Bolen doktorearena. Mediku eta psikoanalista jungiar honek jainkosa grekoetan funtsaturiko arketipoei buruzko ikuspuntu psikoanalitiko klasikoak eta beroriek pertsonen izaeran eta portaeran izan duten eragina hartzen ditu oinarritzat, baina beroriek gaindituta eta harago joanda, estereotipoekin hain loturik ez dagoen dimentsio berri bat, eranitzagoa eta konplexuagoa, ematen die gizonezko zein emakumezko izaerei.

Emakume honen iritzi, esate baterako, lehia, nor bere burua aski izatea eta norberaren helburuak lortzeko borrokatzea ez dira bakarrik gizonezkoen ezaugarriak, emakumezkoen ere badagozkie eta, zalan-tza barik. Shinodak³, beraz, emakumearen berezkozat ere jotzen ditu burujabetasunarekin, eraginkortasunarekin eta erlazio-ezarekin loturiko alderdiok. Ez gara ari, Jung-ek iradoki zuenaren ildotik, gizonezko alderdiak dituen emakumeari buruz, edozein emakumeri buruz baizik.

³ BOLEN, Jean Shinoda (2006, 12. argitaraldia): *Las diosas de cada mujer. Una nueva psicología femenina*. Kairós, Bartzelona, 60. or.

Horrela planteaturik, kendu egiten diegu alderdion emakumeari buruz erabiltzean tradizioz jarri ohi zaien «patologiko» etiketa gerarazlea.

Saiakera honetan, Bolenek, arketipoei buruz proposatutako ikusmolde berriaren bitartez, emakumezko errealitatearen inguruan defendatzen duen ikuspuntu integratzaile, moderno eta osokoa hartuko dugu abiapuntutzat, bai gizarteak, bai zientziak, oharkabean askotan, emakumezkoa islatzean darabiltzaten irizpide okerrak agerraraztekoan, irizpideok erabakigarriak baitira zenbait arketipo sustatu edo aktibatuta daitezten, eta beste batzuk, aitzitik, ez.

Ildo beretik, sakonago aztertuko ditugu begirada murriztaile horrek gure gizartean berdintasunaren, askatasunaren, senidetasunaren eta oinarrizko beste giza eskubideen benetako garapenari jartzen dizkion oztopoak, planteamendurik tradizionalenak betiketozten eta ezinbesteko aldaketaren kontrako erresistentziak elikatzen dituztenak. Zalantzarik gabe, generoen arteko berdintasunaren alde borrokatzea funtsezko zeregina da gure gizartean giza eskubideen garapena lortzeko borrokan.

1. Jean Shinoda Bolen eta arketipoei buruzko bere teoria: emakumeari begiratzeko ikusmolde berri bat

1.1. **Jainkosa grekoak eta emakumezko arketipoak**

Teoria psikoanalista klasikoak emakumezko estereotiporik tradizionalena ordezkatzan duten jainkosak (Demeter, Pertsefone eta Hera) aztertzen zituen bereziki. Jean Shinoda Bolenek, ordea, Artemisa, Atena, Hestia eta Afrodita jainkosak ere hartzen ditu aintzat, begirada positibo eta berritzaile batez. Horrez gain, jainkosak hiru multzo handitan sailkatzea proposatzen du, modu honetan:

- Jainkosa minberak (Demeter, Pertsefone eta Hera).
- Jainkosa birjinak (Artemisa, Atena eta Hestia).
- Jainkosa alkimikoa (Afrodita).

Jainkosa grekoen hiru sail horiek zenbait ezaugarri erkide dituzten hiru emakume-talde deskribatzeko erabiltzen ditu. Dena dela, antzekotasunak gorabehera, talde bakoitzaren barruan, jainkosa bakoitzak beskeen ezberdina den eta berezko ezaugarriak dituen emakume-mota bat ordezkatzan du.

Patroi edo arketipotatzen sailkatzea emakumeen errealitatea esparru hermetikoetan mugatzeko ahalegina dela pentsatu baliteke ere, Bolenek, ahazturiko jainkosa birjinak ere sarturik eta Afrodita jainkosa alkimikoa berrinterpretaturik, emakumezkoen eraniztasun eta konplexutasunari begiratzeko esparru teoriko berri eta zabalago bat proposatzen digu.

Horrez gain, ez da aipatu gabe utzi behar errealitatean, orokorrean, emakume bakoitza ez datorrela bat, edo ez duela zertan bat

etorri, arketipoetako batekin bakarrik. Arketipoak emakumeen psikologiaren barruko joera ezberdinak, euren alderdi positibo zein negatiboekin, adierazteko modu bat baino ez dira. Geroago ikusiko dugunez, hezur-haragizko emakume batek hainbat jainkosaren ezaugarri ezberdinak izan ditzake. Zentzu horretan, bere identitatea emakume-izaera ezberdinen ezaugarri onuragarriekin aberasteko gai den emakumeak askoz garapen osoagoa izan dezake, izaera horietako bati gehiegi lotzen zaion emakumeak baino.

Ikus ditzagun orain jainkosa horietako bakoitzaren eta, beraz, beroriekin identifikatzen diren emakumeen berezitasunik nabarmengarrietako batzuk.

1.1.1. *Jainkosa minberak. Emakume-rol tradizionalak*

Shinodak emazte, ama eta alaba-rol tradizionalak ordezkatzeko dituzten —modurik tradizionalen ordezkatu ere—, hiru jainkosak sarritan ditu «jainkosa minberak» deritzenen sailean:

- *Hera*. Ezkontzaren jainkosa. Hera arketipoko emakumearentzat emazte izatea da bere bizitzaren alderdirik garrantzitsua, eta, horregatik, bere ezkontza-eguna da emakume horren egunik esanguratsua. Arketipo hori duen emakumearen alderdi azpimarragarrietako bat emazte jeloskorrena da.
- *Demeter*. Uztaren jainkosa. Ama elikatzailea. Arketipo horri erantzuten dion emakumea ama babesleegiaren ikurra da.
- *Pertsefone*. *Kore* edo «dontzeila» ere deitzen zaio, eta lurrazpiko munduko erregina da. Adinak eta denborak aurrera egin arren, «*Amaren Alaba*» izaten jarraitzeko joera du. Arketipo hori duen emakumearen alderdi garrantzitsua alaba-izaerak ematen dio.

Alde batetik, jainkosa horien ezaugarriak menpetasuna, babesgabetasuna eta norbaitekin elkartu eta lotura eratu beharra dira, hau da, zientziak eta gizarteak behin eta berriz «*emakumeen berezkotzat*» hartzen dituzten ezaugarriak. Beste aldetik, mitologian, hiru jainkosa horiek gizonezko jainkoen menpe egon ziren, zein bere modura (Herak askotan jasan behar izan zituen bere senar Zeusen irain eta engainuak; Demeter bortxatua izan zen, eta Pertsefone, bahitua), eta hirurek ere oinazez eta ezintasunez nozitu zuten euren harreman sentimentalen haustura edo iraina; alegia, zientziak eta gizarteak behin eta berriz «*emakumeen berezkotzat*» aurkezten dizkigunen moduko arazoak izan zituzten. Horregatik denagatik deitzen die Shinodak «jainkosa minberak».

Arketipo nagusi hiru jainkosa horietako bat daukaten emakumeak ere beraiek bezain minberak direla dirudi. Emakume horien kontzientzia lausoa da, beti daude besteei arreta egiteko prest, baina zailtasun latzak dituzte arreta euren helburu pertsonaletan eta euren osasunaren zainketan jartzeko. «*Era horretako emakumeentzat, zeregin tradizionalak egiteak erabateko zentzua izan dezake*»⁴.

1.1.2. Jainkosa birjinak. Bestelako emakume-izaerak

Arketipo tradizionalago horien beste aldean, Artemisak, Atenak eta Hestiak osaturiko hirukotearen bitartez, gure gizarte modernoetan, sarritan eta sotilki, ikusezin bihurtu ohi diren baina emakumezkoei bada-gozkien beste berezitasun batzuk jasotzen ditu Shinodak. «Jainkosa birjinak» esaten die berak, hau da, gizonetzkoen botereari men egiten ez dioten jainkosak, hain zuzen. Ikus dezagun nortzuk diren:

- *Artemisa*. Ehizaren eta ilargiaren jainkosa; arkulari trebea, arreba, aitaren alaba. Arketipo honekin bat datorren emakumea اندrazko espiritu burujabearen ikurra da, bai eta berak finkatutako helburuak lortzeko ekintasunari eusteko, gogoia helburu horietan biltzeko eta bere jarduna eraginkortasunez kudeatzeko gaitasunarena ere. Bere berezitasunen artean, halaber, bai emakumez-kotasunarekiko (hilekoa, erditzea, menopausia...), bai izadi basatiarekiko lotura espiritual sakona ere nabarmentzen da. Horrelako emakumeek «senidetasunezko» harremanak izaten dituzte bai gizonekin, bai emakumeekin, berdintasunaren ikuspuntutik bertiere. Hain zuzen ere, bidegabekeriak eta gizarte-bereizkeriak eragiten dioten amorru bizia kontrolatzeko zailtasuna izaten da era horretako emakumeen alde ahuletako bat.
- *Atena*. Gerraren, jakituriaren eta artisautzaren jainkosa; estratega, artisaua. Arketipo honi erantzuten dioten emakumeak oso praktikoak izaten dira, boterea eta ospea lortzeko grina izaten dute, eta oso argi ikusten dituzte euren helburuak bizitzan. Oro har, gizon boteretsuek erakartzen dituzte emakumeok, eta adimen handiz laguntzen diete beraiei arrakasta erdiesten; horrela, eurek ere lortu ohi dute garaitzeko laguntza beren gizonengandik. Beste emakumeekin, aitzitik, ez dute oso harreman esanguratsurik izaten. Oso boteretsuak izatera heldu daitezkeen Atena

⁴ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 182. or.

emakumeon alde ahulak euren hoztasuna eta garapen emozional urria dira.

- *Hestia*. Etxearen eta tenpluen jainkosa; bera irudikatzeko ikurrak sua, sutondo biribila eta mandala dira. Erruki eta enpatia handikoa da. Harmonia, lasaitasuna, isiltasuna eta bakardadea bilatzen ditu. Bere barruko mundurantz zuzenduriko kontzientzia du. Patriarkatua onartu egiten du, baina jainkosa birjinen independentzia emozionalak ematen dion pribilegiozko distantziatik, betiere.

Hiru jainkosa horiek elkarren oso ezberdinak badira ere, arketipo horietako bat dagokien emakumeen funtsezko ezaugarri erki-dea «birjina» izatea da, zentzu metaforikoan. Hau da, emakume horiek «*berez dira osoak*» (euren psikearen zati garrantzitsu bat ez da beste inorena); ezetz esaten dakite, baietz esatea errazagoa litzatekeen arren, eta euren barne balioei jarraitzeko eta eurentzat zentzuzkoa dena egiteko motibazioa dute, gainerako pertsonen iritzia edozein dela ere. Emakume horien kontzientziaren kalitatea argi bizibizi baten antzekoa da; beretzat garrantzitsuak diren bizi-alderdientan kontzentratzen den argi baten modukoa. Ondo dakigun legez, gure gizarteak eta zientziak sotiltasunez baztertu eta baztertzen ditu emakume-ezaugarri horiek, edo negatibotzat hartzen ditu, «paradoxikoki». Modu berean tratatzen dira, halaber, sail horretako emakumeek agertzen dituzten eta «*emakumeen arazo*» deritzen artean ere sartzen ez diren beste alde ahul batzuk ere; esaterako: amorrua, hoztasun emozionala, norberaren minberatasunaz ohartzeko zailtasuna edo enpatia-gabezia.

1.1.3. *Jainkosa Alkimikoa. Betidanik txarto interpretaturiko Afrodita*

Azkenik, *Afrodita* aurkeztuko dugu, maitasunaren, edertasunaren eta sentsualtasunaren jainkosa, hain zuzen ere. Shinodak bereizi egiten du Afrodita beste bi jainkosa-taldeetatik (minberen eta birjinen taldeetatik, alegia), eta kategoria ezberdin bat sortzen du berarentzat: jainkosa alkimikoarena. Jainkosa horrek berezko zuen eraldaketa-ahalmen bizi, sakon eta magikoagatik aukeratu du Shinodak izendura hori Afroditarentzat. Bera zen poesia eta espiritualtasuna ernarazten zituena jainkosa eta maitasunaren ahalmen eraldatzaile eta sortzailearen ikurra.

Afroditak «*kriseiluen argipean*» du kontzientzia, hots, zentratua (jainko birjinek bezala) eta harbera (jainkosa minberen moduan), aldi

berean. Olinpoko jainkosa honek bere erabakiz hasten ditu harremanak, inoiz biktima izan gabe. Afrodita berak aukeratzen ditu bere maitasun-abentura ugariak, eta gorputz eta arimaz jarduten du beraietan.

Historian zehar, emakume askotxok identifikatu dute euren burua Afroditarekin, emakume idazle batzuek leialki islatu dutenez. Bereziki iradokigarriak iruditzen zaizkit Gioconda Belli-ren honako lerro hauek⁵: «*Bizitza bizitzatik mozkortu arte edateko grina da. Maitatzea, abestea, bertso ederrak esatea eta gero lo egitea*».

Anaïs Nin-ek ere nabarmentzen du bere biziera trinkoa, bere egun-karietan: «*Idazteak, irakurteak, musikak, filosofiak, kontenplazioak eragiten duten estasia lortzea da nire askoa*». George Sand-ek ere, «*Un invierno en Mallorca*» liburu ospetsuan⁶, bere bizipenetako batzuk kontatzen dizkigu, hala nola «*edertasun eta bakantasun paregabeko monumentuak eta izaera sendoa dituen hiri batean ibiltzearen atsegina*», esaterako.

Emakume horien guztien hitzek islatzen duten bezalaxe, Afrodita-ren espiritua da edertasunera, sentsualtasunera eta atseginerara bultzatzen duena.

Hala ere, bere magia eta energia gorabehera, jainkosa bizi, sakon, espiritual eta kartsu hau emagalduen jainkosa laidoztatua bilakatu zen, kultura judu-kristaua zabaldu zen heinean. Shinodak salatzen duenez, «*Eliz Gurasoek birjinaren eta emagalduren artean sustatu zuten bereizketak eragotzi egin zuen Afrodita jainkosa ohoratu, edo emakumearen izaera sensual eta sexuala ospatu zedin. Emakumezko arketipo guztietatik, Afrodita izan zen ezereztuena eta esplotatuena: bere burua aintzat hartzen zuen emakume orok egin behar zion uko bere izaeraren alde horri*»⁷.

Horrela, atsegina, sentsualtasuna, sexualitatea eta artearen, maitasunaren, izadiaren eta abarren gozamina kartsuki bizi dituzten emakumeen kasuan gure gizarteak eraturako hipokresia, kontraesan eta betiereko dualismoen ikurra izan da jainkosa hori.

⁵ BELLI, Gioconda (2004, 4. argitaraldia): *Apogeo*. Visor Libros, Madril, 44. or.

⁶ SAND, George (1995): *Un invierno en Mallorca*. Omni S.L, Palma de Mallorca, 52. or.

⁷ BOLEN, Jean Shinoda (2006): *Las diosas de la mujer madura. Arquetipos femeninos a partir de los cincuenta*. Kairós, Bartzelona, 257. or.

1. taula

Emakumezko arketipoak

<i>JAINKOSA MINBERAK</i>	<i>JAINKOSA BIRJINAK</i>	<i>JAINKOSA ALKIMIKOA</i>
Kontzientzia lausoa Ez dute euren helburuetan arreta osoa jartzen Rol tradizionalak «Emakumeen arazoak»: menpetasuna, babesgabetasuna...	Kontzientzia fokatua Euren helburuak aukeratzen eta beraien alde borrokatzen dute Eurek hautatutako bizi-ibilbidea Hauen arazoak (amorrua, hoztasun emozionala...) ez dira emakumeen berezkozat hartzen	«Kriseiluen argipeko» kontzientzia Zer, nola eta norekin bizi aukeratzen dute Orainaldian bizi dira Jainkosa honen ezaugarriak txarto interpretatzen edo gaitzetsi egiten dira, emakume den aldetik
<i>Demeter, uztaren jainkosa</i>	<i>Artemisa, ehizaren eta ilargiaren jainkosa</i>	<i>Afrodita, maitasunaren, edertasunaren eta sentsualtasunaren jainkosa</i>
Amaren arketipoa Ama-sena Babesleegia Autosakrifikatua	Emakumezko espiritu burujabea Ekina Ez du patriarkatua onartzen	Espirituala Sentsuala Magikoa Olerkizalea
<i>Pertsefone, dontzeila eta lurrazpiko munduko jainkosa</i>	<i>Atena, gerraren eta jakituriaren jainkosa</i>	
Alabaren arketipoa Harbera Menpekoa Eztia eta moldaeraza	Burutsua Praktikoa Estratega Garailea	
<i>Hera, ezkontzaren jainkosa Emaztearen arketipoa</i>	<i>Hestia, etxearen eta tenpluen jainkosa</i>	
Bere senarra eta bere ezkontza ditu identitatearen funtsa	Errukibera Enpatikoa Bere barrurantz fokatua	

2. Gure gizartean aktibaturik dauden arketipo patroiak

Shinoda Bolenen iritziz, emakumeen arteko ezberdintasunak barne-patroi edo arketipoen eta emakumea bizi deneko gizartearen elkarreragin estuaren ondorio dira. Arketipo horien funtzionamendua, lehen aipatu dugun legez, mitologia grekoko jainkosa-ereduetan oinarritzen da. Arketipo horiek kultura zehatz bateko pertsonen inkontziente kolektiboaren atal dira, eta beraien arabera ikusten eta bizitzen dute pertsona horiek mundua.

Ildo horretan, Shinodak⁸ bi arketipo-patroi bereizten ditu:

- *Arketipo-patroi unibertsalak*: Jainkosa grekoetatik zuzenean eratorritako emakume-ereduak dira. Berez, emakume guztiak eredu horietako edozein aktibatu ahalko lukete euren barruan, edo hainbat eredu aldi berean.
- *Aktibaturiko arketipo-patroiak*: Emakume baten psikean, bere bizitzako une jakin batean funtzionatzen ari diren barne-patroi zehatzak dira.

Era horretan, emakume batek arketipo bat edo hainbat izan ditzake aktibaturik aldi berean, baina beraren portaera zeinek eta zer-nolako indarrez eragiten duten, elkarrekintzan diharduten alderdi askoren menpe dago. Horietakoak dira, besteak beste, emakumeak aurrez duen jarrera, bere familiarekin izan duen esperientzia pertsonala, berarekin bizi diren pertsonak, bere adina eta uneko bizi-fasea, hautatu ez dituen ingurua-barrak eta egitez nahiz ez-egitez hartutako erabakiak.

Alderdi garrantzitsuenetako bat emakumeari bizitzea egokitu zaion une historikoa da, horrexek ebazten baititu bai gizarteak, bai zientziak

⁸ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 48. eta 49. or.

sustatzen, bazter uzten edo zigortzen dituzten arketipoak. Horrek esan nahi du emakume guztiak euren barruan jainkosa horiek guztiak aktibatuta ahal badituzte ere, bakoitzaren bizitza zehatzean, aldagai pertsonal batzuen eta, batez ere, bizitzea suertatu zaion une historikoaren arabera, beraietako batzuk baino ez dituela aktibatuko.

Azken gogoeta horren aurrean, honako galdera hauek egin litezke: a) *Zer arketipo edo emakumeen zer ezaugarri aktibatzen ari dira gaur egun?* b) *Nola aktibatzen dira? Zer mekanismoren bidez?* c) *Berdintasunean oinarrituriko gizarte bat eraikitzearen alde diharduten emakumeen ezaugarriak ala emakumeen eta gizonen artean berdintasunezko harremanak sustatzen dituen gizarteranzko bidea oztopatzen duten emakumeenak aktibatzen dira?* Ikus dezagun zer gertatzen den gure gizartean.

2.1. **Gizarteak eta zientziak jainkosa minberen ezaugarriak aktibatzen dituzte. Giza eskubideen aurkako ezkutuko eraso**

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren lehenengo artikulua argi esaten du pertsona guztiak aske jaiotzen direla eta guztiak berdinak direla, duintasunari eta eskubideei dagokienez:

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

1. artikulua. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.

Emakumeen kasuan⁹, ordea, ustezko berdintasun horrek ez du islarik gure gizartean. Hainbat alderdik gogorarazten digute egunero ez garela berdintasunean bizi: batzuen eta besteen egoera sozioekonomikoa, oro har; etxeko zereginen eta zaintzeko arduraren banaketa gutiz desorekatua, gizonen eta emakumeen artean; emakumeen kontrako tratu txarren indize altuak...

Artikulu honetan, halaber, gizaki guztiok arrazoimenez eta kontzientziaz horniturik gaudelako eta, horrexegatik, elkarrekiko senide-

⁹ Giza eskubideei buruz ari garela, jakin badakigu emakumeen egoera oso ezberdina dela jaioterriaren eta bizilekuaren arabera; saiakera honetan, ordea, konplexutasuna neurrigabeki ez areagotzearen, mendebaldeko herrialdeetako emakumeen profilari erreparatuko diogu soilik.

tasunez jokatu behar dugulako gogoeta sakona ere badago jasota. Argudio hori oso zentzuzkoa bada ere, gure gizarteetan, praktikan, arrazoimenak eta kontzientziak ez bide garamatzate senidetasunezko jokabideetara. Aitzitik ere, senidetasuna eta berdintasuna sustatu beharrean, nagusitasun-menpekotasunezko harremanetarantz garamatzaten portaerak, jarrerak eta iritziak barnerarazten zaizkie, oso sotilki, gizon zein emakumeei, sozializazio-prozesu osoan zehar.

Menpetasuna, autosakrifizioa, pasibotasuna, babesgabetasuna, mugarik gabeko zaintza eta amatasun ohi baino trinkoagoa dira, beste batzuen artean, emakume askok «euren emakume-izaeraren» berezkozat barneratu dituzten alderdietako batzuk, eta alderdiok portaera atsegina, otzana eta ez-aldarrikatzailea hartzera bultzatzen dituzte emakumeok, ezkutuan baldintzatutako kontzientzia medio.

Psikologiaren zientziak, Bolen bera eta beste zenbait salbuetsirik, emakumeen berezkozat jo ditu aipatutako ezaugarriok, eta beste batzuk, aldiz, norberaren iritzi eta jarrerari eusteko irmotasuna edo arrazionaltasuna kasu, gizonen berezkozat.

Jung psikoanalistak, esaterako, emakumeen ezaugarri patologikotzat hartzen zituen bizitzan barruko balioei jarraitu beharra, helburu argiak izatea, xedeok lortzeko borrokatzea eta asmo zein nahiak izatea, besteak beste; eta patologiko zeritzen, izan ere, emakumearen buruan guztiz kontziente ez zen gizontasunezko elementu baten adierazpenak ei zirelako¹⁰. Jakina, gizonei buruz mintzatuz gero, onuragarri zeritzen ezaugarrioi.

Modu horretan, psikologiaren zientziak, sotilki, sistema patriarkal antidemokratiko eta bidegabea iraunarazten lagundu du, eta horretan jarraitzen du oraindik ere, itxurazko neutraltasun horren atzetik, menpekotasunarekin eta pasibotasunarekin lotzen baitu emakumezkotasuna, emakumeak euren jabekuntzara eta gizonekiko senidetasunera eramanez ahal dituzten beste emakume-dohain batzuk patologiak bailiran aurkeztu edo ezkutatu egiten dituelarik.

Clarissa Pinkola ipuin-kontalari, olerkigile eta psikoanalista ospetsuak honela adierazten du: «*Basoko bidezidor bat apurka-apurka ezabatzen eta, azkenean, ia ezerezeraino urritzen den bezalaxe, teoria psikologiko tradizionala azkarregi ahitzen da, emakume sortzailea, talentuduna eta sakona aztertzeko xedea egokitzen zaionean*»¹¹. Emakumeen alderdirik sortzaileenak, onuragarrienak eta transzendentale-

¹⁰ BOLEN, Jean Sinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 68.or.

¹¹ ESTÉS, Clarissa Pinkola (2009): *Mujeres que corren con los lobos*. Zeta, Bartzelona, 15. or.

nak ez dira zientzian islatzen. Horregatik, ausardia osoz esan dezakegu «*egiaren argi zuripean barik, emozioaren argi gorripean idatziriko*» zientzia dela¹².

Psikologiaren zientziak emakumea aztertzean erabili dituen ikusmolde murriztekin batera, emakumeen zaugarritasuna bultzatzen eta generoen arteko benetako berdintasuneranzko aldaketak moteltzen dituzten beste gizarte-faktore batzuk ere badaude, aipatutakoak bezain garrantzitsuak, hala nola: lana eta familia bateratzeko politikarik eza, tradizioak eguneroko bizitzako ohituretan duen pisua; emakumeen eroste-ahalmen txikiagoa, gizonek eta emakumeek zaintzan bete behar duten eginkizunaren gizarte-ikusmoldeak, eta komunikabideek emakumeari buruz erakusten duten irudi desitxuratua, besteak beste. Oztopo horietako bakoitzak bere ekarpena egiten dio emakumeen minberatasuna areagotzeko xedeari.

Faktore horiek guztiak Bolenen emakumezko arketipoen esparru teorikoaren irizpidetik aztertzen baditugu, erraz ondorioztatuko genuke gure gizarteak, hainbat estrategia zientifiko eta soziopolitikoren bitartez, jainkosa minberen berezitasunak aktibatzen dituela: zaugarritasuna; pertsonak zaintzeko laguntza-gabezia, emakumeei beren helburuak lortzen saiatzea eragozten diena; rol tradizionalak... Beste askotan, berriz, batez ere emakumeak ama egiten diren unean, desaktibatzen egiten ditu jainkosa birjinen berezko ezaugarriak (kontzientzia fokotua, ekiteko irmotasuna, adimena, boterea...). Modu berean, Afrodita hezigaitzaren ezaugarriak (grinaz bizi nahia, edertasuna eta abar), edozein emakumek aktibatzen eta onuragarri suertatu daitezkeenak, txarto interpretatzen dira, edo ez dira sustatzen.

Beraz, oraingo une historiko korapilatsu eta anibalentean, alde batetik, benazko urratsak ematen dira berdintasunerantz, eta bestetik, emakumearen rol tradizionalak sustatuz, oztopatu egiten da giza eskubideekin bat datorren mundu bidezkoago eta orekatuago bat sortzeko aukera.

Hori dela eta, hurrengo kapituluetan, jainkosa minberen arketipoei erreparatuko diegu xehetasun handiagoz, bereziki Demeter eta Persefone jainkosenei, bi arketipo horiei dagozkien ezaugarriak aktibatzen sustatzen baitira, nik uste, tradizioz emakumezko estereotipotzat hartu izan denaren berezitasunik kontserbadoreenak.

¹² WOOLF, Virginia (2003; jatorrizkoa, 1929an): *Un cuarto propio*. Alianza Editorial, Madril, 39. or.

3. Aktibaturiko jainkosa minberak, Demeter eta Pertsefone, sakon ezagutu nahian

Bolenek jainkosa minbera deritzen jainkosetako bi hauek ezagutzeko, Demeterren eta Pertsefoneren mitoaren inguruabar nagusiak deskribatzen hasiko gara. Mito sistemiko horren kontaketak bi jainkosa horien arteko muinezko harreman arketipikoaren berri ematen digu, bai eta harreman horrek bakoitzaren identitatearen definizioan eta garapean duen garrantziarena ere.

Alderdi erkideetan oinarrituriko sarrera horren ostean, ikuspuntu psikologikotik aztertuko ditugu bi jainkosak, beraien izaerari buruz eta arketipo horiek gehiegi aktibatzeak beraiengan, euren familian eta gizartean eragiten duenari buruzko gogoeta egin aurretik.

3.1. Demeterren eta Pertsefoneren mitoa

Greziako mitologian, Demeter uztaren jainkosa zen, lur emankor eta landua irudikatzen zuen, eta toki garrantzitsuenean egoten zen, uztaren garaian. Erromatarren kulturak Zeres —zerealak— deitutako jainkosa hori urre koloreko adats duen emakume eder gisa deskribatzen da.«*Beraren edertasun soila nabarmendu egiten zen, beraren xarmak galburu helduen antzeko adats horailaren azpian antzematen zirelarik*»¹³.

¹³ VILLALOBOS, Magali (2004): *A puntadas. Cuadernos de mitología griega y psicología arquetipal*. Alfa Grupo Editorial, Venezuela, 178. or.

Demeter Kronosen eta Rearen alaba (Olinpoko lehenengo belaunaldiko jainko-jainkosena) eta Zeusen arreba da. Olinpoko jainkosa honek emakumeen amatasun-sena pertsonifikatzen du, eta, inkontziente kolektiboan, ama jainkosa babesleegiaren ikurra da: lasaia, esne- eta ezti-sortzailea, eta maitasuna, babesa eta mantenu espirituala dakartzan hornitzaile leiala.

Pertsefone, bere alaba maitea, bere neba Zeusekin sortu zuen Demeterrek. Pertsefonerekin zentzurik handiena hartzen du Demeterren ama-eginkizun garrantzitsuak. «Korek, Zeusen eta Demeterren alabak, zereal-aleak, haziak, irudikatzen ditu. Kore sortzean, Demeter jainkosaren ama-eginkizunak dimentsio bikoitza hartzen du: alde batetik, ume batez erditzen den eta maitasunez zaintzen duen emakumea da, eta bestetik, aldi berean, hazia babesten eta elikatzen duen lurra. Laborantzan parte hartzen duten amak»¹⁴.

Hasiera batean, Pertsefoneren irudia kezkarik gabe loreak hartzen eta bere lagunekin jolasten aritzen den jainkosa eder, lirain eta gaztearena da. Bera gurtzen zutenek «dontzeila» edo Kore («neskatxa») zeritzoten.

Baina mundu idiliko hori bere osaba Hades¹⁵, hildakoen Jaun boteretsu eta maltzurra, azaltzean hautsi zen. Hadesek, Pertsefone bahitu eta indarrez eraman zuen lur azpiko mundu ilunera, bere maitalea izan zedin. Demeterrek urrundik entzun zuen bere alabaren garrasi larria, egoera bortitz hark eragindakoa, eta ziztu bizian irten zen beraren bila, baina, eginahal guztiak egin arren, ezin izan zuen saihestu Hadesek bere alaba bortxatzea.

Bere alabaren bahiketa eta bortxaketaren bizipen ikaragarriak eta bera laguntzeko egindako ahalegin antzuek goitik behera aldatu zuten Demeterren izaera: bere eskuzabaltasuna eta maitasuna frustrazio, etsipen eta min sakon bihurtu ziren. Gainera, Demeterrek berak ere, bere alaba bilatu bitartean, itsasoko Poseidon jainko oldartsuaren erasoak pairatzeak are biziagoa egin zuen oinazea.

Une latz eta bortitz horien ondorioz, min sakonaren bizipena bere identitatearen funtsezko atal bihurtu zen.

Hala eta guztiz ere, Demeterrek ez zuen amore eman, eta, bere alaba berreskuratzeko estrategia gisa, lurra antzutzeko —hots, apurka-apurka suntsitzeko— mehatxu egin zuen, Pertsefone itzuli ezean.

¹⁴ *Ibid.*, 179. or.

¹⁵ Hadesen ezaugarriak hobeto ezagutzeko, liburu hau irakurtzea gomendatzen dut. BOLEN, Jean Shinoda (2004): *Los dioses de cada hombre. Una nueva psicología masculina*. Kairós, Bartzelona.

Mehatxu izugarri horren aurrean, Zeusek berak esku hartu behar izan zuen: Hermes bidali zuen Hadesengana, Koreren itzulera agindu ziezaiion.

Pertsefonek, ordea, bere osabarekin jasandako guztia nozitu arren, eta bere amaren aholkuari entzungor eginez, Hadesek eskainitako mingranaren ale batzuk jan zituen, ilunpeko mundua utzi aurretik. Itxuraz erabat kaltegabea zen ekintza horrek bere bahitzailearengandik guztiz askatzeko ezintasuna ekarriko zion Pertsefoneri, betiko. Gertaera horren ostean, Pertsefonek urtearen heren bat igaro beharko zuen Hadesekin lurpeko munduan, eta gainerako bi herenak, bere ama Demeterekin, goiko munduan.

Pertsefone, bizipen kontraesankor horiek integratuta eta beraien ikaspena barneratuta, lurpeko munduko erregina bihurtuko zen, lur azpiko mundura (inkontzientera, iluntasunera, oinazera, emozioetara...) sartzen eta bertatik ateratzen dakien jainkosa heldua, hori dena bere laruan nozitu ondoren.

Mito horrek islatzen duen legez, ama-alabak beti daude bat eginik, gorabehera guztiak eta gizonezko agintearen gehiegikeriek eragindako bizipen mingarriak jazo arren. Demeterrek eta bere alaba Pertsefonek, beraz, ama-alaben arteko muinezko lotura guztiz arketipikoa irudikatzen dute, zeinetan amak beti (beste arketipo batzuekin aberasten ez bada, behintzat) «AMAre» rolari erantzuten dion, eta alabak (arketipoa gainditu ezean) «ALABAre» rolari.

3.1.1. *Demeter. Amaren arketipoa*

Les compliments de son mari et de son fils et leur bonheur, c'était tout ce qu'elle demandait de la vie.

Albert Cohen, *Le livre de ma mère*¹⁶

Orain, erreparatu diezaiegun Demeterren arketipoa duten emakumei eta beraien haurtzaroaren, nerabezaroaren eta helduaroaren berezitasunei. Aztertu ditzagun sakonki emakumeon ezaugarri laudagarriak, beraien ahulguneak, eta arketipoaren gehiegizko garapenak ekar ditzakeen arazo ugariak.

¹⁶ COHEN, Albert (2007; jatorrizkoa 1954koa da): *Le livre de ma mère*. Folio, Barzelona, 21. or.

3.1.1.1. *Hautzaroa eta nerabearoa: «ama txikiak»¹⁷*

Demeterren arketipoko neskatok, txiki-txikitatik, «*amarena egitea*» dute gustuko. Era horretako neskatoen jolas sinbolikoek gogo eta amets horiexek islatzen dituzte. Euren panpinekin jolasten dira eta ama maitekor eta samurrarena egiten dute. «Ama babeslearen» berezitasun horiek hainbat alderditan islatzen dira beraien nerabearoan eta gaztaroan¹⁸, hau da, helduaroranzko bidean zehar:

- a) Beste pertsona batzuei laguntzeko prestasun handia agertzen duten neskatok eta gaztetxoak izaten dira.
- b) Ikasketei ez ohi diete iritzi oso garrantzitsu.
- c) Euren amekin eta «emakumezkotasunarekin» oso lotura estua duten ume eta nerabeak izaten dira, euren aitekin eta «gizonezkoen» kontuekin, ostera, batere loturarik izaten ez dutelarik. Nebaren bat baldin badute, ez da harrigarri izaten beraiekin ere «amarena» egitea.

Demeter neskatoen ikusmoldearen arabera, emakumeak eta gizonak oso ezberdinak dira, eta gizonak ez dira emakumeak bezain trebeak «*emakumezkoen kontuez*» —umeen hazkuntzaz edo etxeko zereginaz, esaterako— arduratzeko. Euren aitak menpeko pertsona gisa jokatu badu eta aipatutako zeregin horietan gaitasunik erakutsi ez badu, Demeter nerabeak erraz indartuko du «*emakumeen kontuetan*» gizonen trebetasunaz fidatzerik ez dagoelako uste sakona. Aitzitik, euren aita etxean eraginkorra eta langilea izanez gero, zalantza azalduko zaio bere premisen inguruan: «*gizon guztiak ote dira ezgauza etxeko zereginetarako, ala batzuk bakarrik dira horrelakoak?*».

Egitate horrek argi erakusten du familiarteko jokabideek eta zereginen banaketak eragin itzela izan dezaketela Demeter neskatoren edo nerabearen uste sakonen bizitasuna eta, beraz, bere arketipoaren norabidea eta indarra areagotze edo urritze aldera.

3.1.1.2. *Demeter emakumearen helduaroko ezaugarriak*

Baina, *nola azaltzen da Demeterren arketipoa emakume helduarengan?* Zein dira horrelako emakumeen berezitasun nagusiak? Zein dira emakumeon alde indartsuak eta alde ahulak? Jarraian, galdera horiei erantzuten saiatuko gara, arketipoaren ezaugarri garrantzitsuenak deskribatuz.

¹⁷ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 236. or.

¹⁸ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 238. or.

BAT. *Oso ama-sen indartsua*

Demeterrena arketipo nagusi duen emakume helduaren bizitzan, «*ama izatea*» da bere alderdirik garrantzitsuena. Zalantza-izpirik gabe adierazten dute: seme-alabak izatea gustatzen zaie eta horixe nahi dute. Batez ere, ume txikien ama —hots, euren maitasun eta zaintzaren beharra duten ume txikien ama— izeneko bizi-aldiaz gozatzen dute.

Arketipoaren barruan, amatasun-sen bizi hori muturrera eramanik, ostera, suerta liteke Demeter emakumea bai beretzat bai hainbeste nahi duen umetxoa zaintzeko erabat desegokiak diren egoeretan gertatzea haurdun.

BI. *Beste pertsona batzuk babesteko eta zaintzeko beharrizana*

Demeter emakume helduak (edo beste arketipo batzuk dituzten emakumeen eta gizonen Demeter-zatiak) beste pertsona batzuk zainduz, babestuz eta elikatuz gozatzen du. Hori egiten duenean, ondo sentitzen da, pozik bere buruarekin eta bere bizitza gidatzen duen patuarekin. Zaintzeko joera hori bere identitatearen oso alderdi sakona da, eta bere emozio, portaera eta erabaki garrantzitsuetako asko azaltzen ditu.

Demeterren amatasun-sen indartsua zaintzaren ideia horrekin egoten da loturik. Baina, berez, seme-alabak izan dituen edozein emakumek, Demeter izan nahiz ez izan, dosi handi bat behar du arketipo horretatik, haurdunaldia bizitzeko eta ume babesgabe bat zaintzeko, elikatzeko eta babesteko, besteak beste.

Ume jaioberriek, euren garapenerako eta eguneroko zaintzarako, helduengandik behar duten inplikazio eskerga bistakoa da: gauez ohetik arrapaladan altxatu, jaten emateko edo kontsolatzeko; zaindu, gaixo daudenean; arreta egin, hala behar dutenean... Aipatutako horiek egunerokoan inplikazio eta eskuzabaltasun handiak eskatzen dituzten egoera anitzetako gutxi batzuk baino ez dira, eta norberaren beharrizanak albo batera edo geroagoko uztaerazi egiten dituzte, askotan.

Berez, jaioberriak, umeak, gaixoak, adinekoak edo premia bereziak dituzten pertsonak zaintzen diharduen edonork, ama ez bada ere, Demeterren dosi handi bat behar du, beste gizaki babesgabe eta menpeko bat zaintzeko eta babesteko. Beste alde batetik, gizonak ere egoten dira Demeterren arketipoarekin harremanetan, euren egozentrismotik irten eta euren seme-alabak edo beste pertsona batzuk zaintzeko ardua euren gain hartzen dutenean.

Hortaz, norbaitek zaintzea behar duten beste pertsona batzuk bere ardurapean dituen edonorengan azaltzen dira, edo garatu beharko lirateke, Demeter jainkosaren berezkoak diren eskaintza-gaitasuna eta

maitasuna. Alegia, zaintzaren alderdi horrek ez luke emakumeen, edo seme-alabak dituzten emakumeen, berezitasun eskusibo izan beharko.

Berezitasun hori arketipoaren alde indartsuetako bat dela esan daiteke. Bizi gareneko gizartean, oro har, besteak zaintzeko prestasun hori garatu beharreko giza balioetako bat da. Gizartearen ikuspuntutik, zorrionekoak ginateteke, pertsona askok (gizonezko eta emakumezko askok) egingo balute bat jainkosaren eskuzabaltasunarekin, eta elkar zaintzeko eta gure bizilekua den Lur planeta babestu beharra sentituko balute, hain sakonak, samurrak eta konprometituak diren sentimendu horietatik aldendu edo beroriek deuseztatu ordez.

HIRU. *Gozamena eta boterea, gainerako pertsonentzako janaria prestatuz eta beraiek elikatuz*

Sukaldea ez zen leku; sinesmen-multzo bat zen, funtsean. Mingaina esklabo bihurtzen zuen janari ezin gozoago hura alfonbra magiko baten gainean hegan baletor bezala.

C.S. Lakshmi, *Una cocina en un rincón de la casa*¹⁹

Zaintzaren arloan, gainerako pertsoneri janaria prestatzeak eta eurak elikatzeak itzelezko eta barru-barruko poztasuna eragiten diote Demeter emakumeari. Besteak bere bitartez elikatzeak ematen dion botereaz gozaten du bereziki.

Horregatik, Demeter emakumeen ikuspuntutik, janaria ez da gastronomia-kontu huts bat, emozioekin oso lotura estua duen alderdi bat baizik, zaintzaren eta babesaren adierazpide bat, alegia. Norbaitek ondo jaten duela esateak ondo elikaturik eta ondo zaindurik dagoela adierazten du eta hori funtsezko alderdietakoa da, Demeter emakumearen ongizatea ulertzeko eran.

Gehiago nahi duzu? Gustura ari zara jaten? Botako dizut beste pixka bat? Nolatan jan duzu gaur horren gutxi? Zer prestatuko dut bihar bazkaltzeko?... Tankera horretako galderak sarri entzuten dira Demeterren arketipoa duten emakumeekiko elkarrizketetan.

Erraz ondorioztatu daitekeenez, horrelako emakumeek ez dute sakrifiziotzat edo menpekotasun-erakusgarritzat hartzen denentzako janaria prestatzea, janaria mahaira eramatea edo, besteak jada jaten ari diren bitartean, janari gehiago prestatzen jardutea, adibidez. Aitzitik, goian esan dugun bezala, gozatu egiten dute hori ginez.

¹⁹ LAKSHMI, C.S. (2008): «Una cocina en un rincón de la casa»; in BUTALIA, Urvasi (arg.): *Mujeres en la India. Antología de nuevas escritoras indias*, Booket, Bartzelona, 106. or.

LAU. *Euren gizonak zaintzeko beharrizana: «umeak bezalakoak dira»*

Arketipoko emakumeen «ama-izaera» elikatzaile hori gizonekiko harremanetan ere islatzen da. Demeter emakumearen inguruan, «umeak bezalakoak» diren eta emakumeek zaintzea gogoko duten gizonak egon ohi dira: eurak «amak bezala» babesten eta zaintzen dituzten emakumeekin gustura dauden gizonak, hain zuzen.

Era horretako emakumeek erraz hartzen dute «euren gizonaren amaren» rola, umeen zaintzarekin eta etxearekin zerikusia duten zereginetarako, gizonezkoak baino trebeagoak direla uste izaten baitute. Beren laguntza eta maitasuna behar dituztelakoan babesten dituzte euren gizonak.

Gizonak etxeko zereginen eta umeen zaintzaren ardura eurek barrarik betetzeko gai ez direla pentsatzea kausazko atribuzio²⁰ (besteen portaerei ematen diegun azalpen) barrukoa, egonkorra eta kontrolaezina da. Horrek esan nahi du emakume horien iritziz gizonak «horrelakoak direla» (barruko atribuzioa), «beti izango direla» (atribuzio egonkorra) eta «inoiz ez direla aldatuko» (atribuzio kontrolaezina).

Ondorioz, nahiko portaera tradizionala duten emakumeak dira, etxeko zereginen eta seme-alaben eta senarraren zaintzaz arduratzeari «erabat natural» deritzotenak. Eskuzabaltasunez zaintzen dituzte euren gizonak, beraien eginbeharrak gogoraraziz, kontsolamendua emanaz, behar dutenean, bai eta kalera irteteko arropa beraien ordezkari gaituz ere, askotan.

Jakina, euren gizonengatik hori guztia egitean ez dira haserretzen; izan ere, gizonek hori guztia egiten ez badute, ez da «nahi ez dutelako», «ezin dutelako» baizik. Euren bizitzak berak ematen die arrazoia, inguruan dituzten gizonezkoak benetan baitira «umeak bezalakoak».

Un mari, un fils à guider et à servir avec une humble majesté. Elle ne s'était pas mariée para amour. On l'avait mariée et elle avait docilement accepté²¹.

Demeterren arketipoko emakumeentzat nahiko erraza da gizonak etxeko zereginetarako gai ez direlako sineste horri eustea, orokorrean, lehen iradoki dugun legez, horixe erakusten duten gizonekin erlazionatu ohi direlako:

²⁰ Javier Burón-ek kausazko atribuzioari buruz dihardueneko *Motivación y aprendizaje* kapitulu argi eta sakona irakurtzea aholkatzen dut, atribuzioek bizitzan duten pisua hobeto ulertzeko.

²¹ COHEN, Albert: «Le libre de ma mère», *op. cit.*, 19. or.

- a) emakumeei eurak zaintzen eta «dena» egiten uzten dieten gizonekin;
- b) emakumeen prestasunezko jarrera kontzienteki aprobetxatzen duten gizon batzuen haur-alderdirik erosoenarekin;
- c) zereginetan parte hartzen duten eta «a priori» jarrera positiboa duten arren, «*beti dena txarto egiten duten*» gizonekin, «*ezer egin barik gehiago laguntzen duten*» horietakoekin.

Azken bi motetako gizonen kasuek psikologian sakon ikertu den fenomeno bati erantzuten diote, pertsonen iguripenek besteen portaeran duten eraginari, alegia: betiere betetzen den profezia.²²

Oraingo mintzagai zehatzari gagozkiolarik, «*emakumeek euren senarren portaerari buruz dituzten iguripenak gizon horien jokamoldeetan islatzen direla*» nabarmenduko genuke.²³

Horri buruz, adibide asko eta asko aurkitu ahal ditugu literaturan, hala nola Douglas Sawin-ek eta Ross D. Parke-k²⁴ gizonen eta emakumeen euren seme-alaba jaioberriak elikatzeko dituzten trebetasunen inguruan egindako azterlana, esaterako. Ikertzaile horiek ondorioztatu zutenaren arabera, aitek amak bezain sentikorrek dira, eta erantzun berdinak ematen dituzte, jaioberriak, elikadurarekin loturik, igortzen dituen seinaleen aurrean. Sawinek ikusi zuenez, ordea, aitek askoz denbora gutxiago ematen dute hori egiten, «*bai berak, bai amak gizonaren gaitasuna txikiagoa dela uste dutelako*», besteak beste. Izatez, aita gehienek uste dute, euren eginkizuna edoskitzaroaren ostean hasten dela, eta euren parte-hartzea askoz garrantzitsuagoa dela bizitzako geroagoko aldie-tan, nerabezaroan zehar bereziki.

Gauzak horrela, beraz, Demeter emakumeak, etxeko lana «berak bakarrik» egin behar duen arren, salbu gorde ahal ditu bere ideien indarra eta segurtasuna. Hau da, salbu gorde ditzake bai bere arketipoa, bai gizonen atarramentu eskasari buruz dituen iguripenak.

BOST. *Autosakrifizioa eta muga pertsonalik eza*

Aurreko ataletan aipatu dugunez, Demeter emakumea eskuzabal-tasunez eta babesa emanez zaintzen ditu bere seme-alabak, senarra eta etxea.

Prestasun eta laguntzazko jarrera onuragarri horrekin batera, autosakrifiziorako gaitasun handia izan ohi dute emakumeok. Gaitasun

²² BURÓN, Javier (1995, 2. argitaraldia): *Motivación y aprendizaje*. Mensajero, Bilbo.

²³ PARKE, Ross D. (1998): *El papel del padre*. Ediciones Morata, Madril, 67. or.

²⁴ *Ibid.*, 68. or.

hori oso ezaugarri positiboa da pertsona orengan, bai eta barne-hazkuntzaren, enpatiararen eta egozentrismoa gainditu izanaren adierazle ere. Baina sakrifiziorako gaitasun laudagarri hori kaltegarri bilakatu daiteke, neurria gaintuz gero, «*egunerokoan, beste pertsonen beharriaznak asetzeko gehiegizko joera*» ekar dezakeelako, «*norberaren premiak albo batera utzirik*»²⁵.

Izan ere, norberaren beharriaznak neurritz gain alboratzea, gutxiestea edo atzeratzea arriskutsua izan daiteke emakumearen buruzain gorputz-osasunarentzat. Zenbaitetan, adibidez, gerta daiteke Demeter emakumea guztiz nekaturik sentitzea eta, hala ere, atsedean hartzeko eta indarrak suspertzeko unerik ez bilatzea. Horrelako emakumeek ezetz esateko eta gainerako pertsonen eskaerei muga jartzeko gauza ez direla sentitu dezakete.

Norberaren zaintza eta beharrezko atsedena albo batera uztean daztan jarrera horrekin —arketipoaren berezkoarekin—, bere buruari egiten dio kalte, erresumina eta amorrua sortzen dizkiolako. Baina Demeter emakumeak ez ditu sakoneko sentimendu horiek onartu izaten, ez bere baitarako, ez besteen aurrean. Bere sentimenduak ez onartzearen ondorioz, Demeter emakumeak beste pertsoneri amarruz eta inkontzienteki mina emanez bideratzen du bere frustrazioa. Bere mugetan errespetatua sentitzen ez denez, maite dituen pertsonen bizitza eta autonomia sotilki hertsatuz eta mugatuz itzultzen du hobena, eta horrek, sarritan, itzelezko oinazea eragiten du bere ingurukoengan. Gainera, bere maitasunaren frogia gisa azalduko ditu askatasun-murrizketa horiek, gehiegizko maitasuna izan daitekeela onartuta ere agian. Era horretan, beste pertsonentzat zaila izango da beraren kontrako jarrera hartzea, jarrera ankeratza eta sentiberatasunik gabekotzat hartu liteke eta.

Inguaruabar horiek guztiek paradoxazko egoera sor dezakete emakume horren inguruan, beste pertsonak, beraren laguntza «*eskuzabala*» jasotzen duten arren, euren iritziak eta nahiak ulertzen eta errespetatzen ez direla sentitu dezaketelako, euren sakonenean. Shinodaren hitz argigarri eta sakonen bidez adierazteko, «*'Ikusi ezinezko' hainbeste mina eragiten duen jarrera horren zioz, berori pairatu behar duten beste pertsonak defentsazko jarreran, errudun, haserre edo indargabe sentitu ohi dira maiz, horren arrazoia ulertu ezinez eta euren burua nola defendatu jakin barik*»²⁶.

²⁵ YOUNG, Jeffrey E. eta KLOSKO, Janet S. (2001; jatorrizkoa 1993koa da): *Reinventada tu vida. Cómo superar las actitudes negativas y sentirse bien de nuevo*. Paidós, Bartzelona.

²⁶ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 234. or.

SEI. *Demeterren arazo handia: depresioa*

Demeter emakumea zorionsua da ume jaioberriak eta bere zaintza-eremua duten menpeko ume txikiak dituen bitartean, baina egoera, logikaz, okerrerantz doa, seme-alabak hazi ahala, euren autonomia-mailak areagotuz doazelarik.

Une horietan, baldintza gabeko maitasuna eta mugarik gabeko autosakrifizioa oinaze, haserre eta etsipen bihurtu daitezke. Bere seme-alabak hazteak, euren autonomiarantz jotzeak, mina ematen dio Demeterri, «*bere seme-alabek autonomiarantz ematen duten urrats bakoitza bere muinaren, senaren eta arketipoaren zati baten galera mingarria baita emakume honentzat, beraiek elikatzen eta babesten dituen izakia den aldetik*». ²⁷

Emakumeok beste pertsonen hazkuntzaren aurrean nozitzen duten frustrazioa adierazteko modurik maltzur eta ankerrenetako bat beraien independentzia-sintomekiko onespina eta maitasuna kentzea izaten da. Inguruan dituen pertsonak, heldutasuna berenganatzeko, behar dutena, aitzitik, independentzia-maila apurka-apurka areagotzea da, hain zuzen ere.

Oinaze horrek eta ondoriozko jokabideak, kontuz ibiltzen ez bada, depresiora eramán dezakete, zoritxarreko emakumea dela sentiaraziz eta bere iraganari, orainaldiari eta etorkizunari ikusmolde negatiboz begiratu araziz.

ZAZPI. *Arduragabetasun emozionala eta aldaketarekiko babesgabetasuna*

Demeter emakumeari, depresiora heltzen denean, ez zaio asko kostaten deprimiturik dagoela onartzea.

Kontzientzia horren beste aldean, ordea, oztopo latzak izan ditzake beste hauek aintzat hartzeko edo onartzeko; alegia:

- a) maite dituen pertsonetikiko haserre edo etsipenezko bere sentimenduak;
- b) oraingo egoerara ekarri duten portaerak (gehiegizko babesa, mugak jarri ez izana...);
- c) murgildurik daukaten egoerak aldatzeko aukera.

Hiru alderdi horiek onartzeko zailtasuna guztiz loturik dago depresioa sortarazi eta iraunarazi duten sinesmen sakonetako birekin: ardura-

²⁷ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 235. or.

gabetasun emozionalarekin eta aldaketarekiko gehiegizko babesgabetasunarekin, hain zuzen²⁸.

Arduragabetasun emozionala, alde batetik, norberaren bizitzarekiko konpromisorik eza da, «*pertsonak bere emozioen gaineko eta, batez ere, bere zoritxarraren gaineko kontrol urria duelako*» ustean oinarriturikoa²⁹. Demeter emakumeen iritziz, bizitzan gertatzen zaiena, eta euren sentimenduak ere, kanpoko alderdien menpe daude beti, zortearen edo beste pertsonen menpe, esaterako. Horregatik, gertatzen zaien guztiaren errundunak gainerakoak edo zoria izaten dira beti, munduari buruz duten ikuskeraren arabera: «*Ezin dut naizen bezalakoa izatea saihestu*», «*ezin dut ezetz esan*»...

Arduragabetasun emozional horrekin oso loturik, aldaketarekiko gehiegizko babesgabetasuna agertzen duten emakume ugari aurki ditzakegu, jarrera horri honako uste honek eusten diolarik: «*pertsonak, iragandako bere historiaren emaitza den aldetik, ezer gutxi egin dezake beraren efektuak aldatzeko*»³⁰.

Babesgabetasun hori adierazteko, «*nola aldatuko naiz orain, nire adinean!*», «*honek ez du irtenbiderik*», eta antzeko esamoldeak erabiliko ditu, bere burua, uneoro, depresiotik irteteko bidea oztopatzen dioten eta kalte itzela egiten dioten ideien inguruan biraka mantenduz.

Gaixotasun hori gainditzen saiatzeko, Demeterren arketipoko emakume batek introspektzio handia egin behar du, bere barneari arretaz begiratu, bere akatsak onartu eta garatzen jarraitu, alegia; beste jainkosa batzuen alderdiak bereganatu eta Demeter gainditu egin behar du, aldaketa horrek min eskerga badakarkio ere.

²⁸ CARDEÑOSO, Olga (2007): «De la psicología cognitiva a la literatura: nuevos horizontes en el análisis de las creencias y el autodiálogo de las mujeres»; in DE MIGUEL, Pilar (arg.): *¿En qué creen las mujeres? Creyendo y creando*, Desclée De Brouwer, Bilbo.

CARDEÑOSO, Olga (2006): *Adolescentes víctimas de maltrato. Programa de intervención en autocontrol emocional*, Mensajero, Bilbo.

CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (2001): «Creencias, resolución de problemas sociales y correlatos psicológicos», *Psicothema*, 13(1), 95-100. or.

CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (1999): «Creencias y síntomas depresivos: preliminares en el desarrollo de una Escala de Creencias Irracionales Abreviada», *Anales de Psicología*, 15(2), 79-190. or.

²⁹ ELLIS, Albert (1980, jatorrizkoa 1962an): *Razón y emoción en psicoterapia*. Desclée de Brouwer, Bilbao, 69. or.

³⁰ *Ibid.*, 78. or.

3.1.2. *Pertsefone. Alabaren arketipoa*

Emakumeak egin egiten dira; ez dira berez sortzen. Batzuek, inbidualizazioaren suetatik igaro ez direlako, ume izaten jarraitzen dute. Axolagabe eta, agian, arduragabe, haurtzaroko idealei loturik geratzen dira: perfektutasunaren promesari eta mugarik gabeko giza ahalmena izateko ametsari. Emakumeok gainazalean gelditzen dira, sakontasunarekiko kontakturik gabe, irribarre baikorrez beterik, baina erantzukizunaren zama, konpromisoaren tentsioak eta helduaroko errealitate soila jasateko gauza ez direla».

Connie Zweig, *Espesjos del yo*³¹

Dagoeneko, Demeterren eta Pertsefoneren mitoaren protagonistetako baten ezaugarriak azaldu ditugu. Esan dugun bezala, Demeter AMAren arketipoaren ordezkari nagusia da, inkontziente kolektiboan.

Ondoren, aldiz, ALABAren ikuspegitik sakonduko dugu mito sistemiko horretan. Baina ikuspegi hori ez da edozein alabarena izango, Pertsefone jainkosarekin identifikatzen den alabarena baizik, hots, «*amaren alaba*» pasibo, menpeko eta moldaerrazarena; Demeter amari hain atsegin zaionaren moduko alaba esanekoarena.

Jainkosa horren arketipoaren «*dontzeila*» alderdiarekin bereziki identifikatzen diren emakumeen bilakaeraren ohiko inguruabarrak azalduko ditugu, haurtzarotik helduarorakoak. Halaber, Pertsefone emakume helduaren ezaugarriak eta mugak ere aztertuko ditugu sakon, era horretako emakumeen alde ahulak (menpekotasuna, pasibotasuna, onespren-beharra, depresioa), ikusmolde kolektiboan, maiz, ustezko emakume-izaerarekin lotzen direla agerian jarri.

3.1.2.1. *Haurtzaroa eta nerabezaroa: «neskato zintzoak»*

Haurtzaroan, Pertsefone umea «*neskato zintzoaren*» eredua da, inor bada: ume esaneko eta lasaia, besteen gustukoa izatea atsegin duena. Txikitatik jada, irudi horri leialtasunez jarraituz, esaten dioten guztia egiten du, beretzat aukeratzen duten arropa janzten du, sarritan egiten du irribarre, eta besteek beregandik espero dutenaren arabera jokatzeko du.

Euren haurtzaroa eta nerabezaroa igarotzen dituzteneko familia motak eta familia horrengandik jasotako heziketak nabarmenki baldin-

³¹ ZWEIG, Connie (2007): «Lo femenino consciente: nacimiento de un nuevo arquetipo», in DOWNING, Christine (arg.): *Espesjos del yo*, Kairós, Bartzelona, 246. or.

tzatzen dute neskato xarmagarri hauen bizitzak hartu dezakeen norabidea. Oso testuinguru ezberdinak sor ditzake, eta umeok, halaber, garapen pertsonaleko oso prozesu ezberdinak —bai eta guztiz aurkakoak ere— garatu ditzakete. Ikus ditzagun, adibide gisa, neskato hauek euren amekin izan dezaketen harremanarekin loturiko familiarteko hiru egoera:

- a) Pertsefone neskatoaren ama jainkosa birjinetako bat bada (Artemisa edo Atena, esaterako), eta, besteen nahiak betetzeko eta atsegin izateko joera hori tartean badago ere, bere alabaren identitatea errespetatzen badu, neskatoari ama imitatzekeko motibazioa piztu ahal zaio eta, horrekin, amaren trebetasunak landu: bereari eusteko irmotasun edo saiamena eta autonomia aurkitu nahia, adibidez.
- b) Aitzitik, Pertsefone umearen ama jainkosa birjina bat bada (Artemisa edo Atena kasu) eta alaba, autonomo eta burujabe izan dadin, gehiegi presionatzen badu eta beraren pasibotasuna eta moldaeraztasunerako joera jasaten ez baditu, neskatak oso txarto pasatu dezake eta guztiz ezulertua sentitu. Presiozko inguruabar horietan, Pertsefone moldakorrak amaren nahia betetzeko eta adorea izateko itxurak egin ditzake, nahiz eta bere barruan «*iruzurtia*» dela sentitu eta itzelezko segurtasun-gabezia hauteman.
- c) Aipatutako bi kasuen beste aldean, Pertsefone neskatoaren ama Demeter bezalako ama babesleegia bada, zer egin eta zer esan behar duen beti esaten dabilkiona, neskatoaren pasibotasuna eta menpetasun-joera nabarmenki areagotuko dira. Ama horrek, beraz, sustatu egiten du, modu sotil eta hazkorrarean, umeak besteen esanari jarraitzeko duen joera arriskutsua.

Pertsefone gazteak, nerabazarora heltzean, amarekiko harreman-mota horretan harrapatuak jarraitzen badu, amarekin, eguneroko bizitzako poztasun edo atsekabe txikietatik «bere sekreturik» barrukoenetara, den-dena konpartitzen duen nerabe bat izan daiteke, hots, amarengandik eta horren iritzietatik aldendu beharrik sentitzen ez duen eta, aitzitik, bere bizipen, emozio eta ideiak amarekin konpartitzen dituen gaztetxo bat.

Horrelako familietan, aitek distantzia hartu izaten dute amaren eta alabaren arteko harreman estutik; alde batera egon ohi dira, eta inplikazio handiagoa hartzen dute euren semeen hazkuntzan.

3.1.2.2. *Pertsefone emakumearen helduaroko ezaugarriak*

Bere burua Pertsefonerekin identifikatzen duen emakumeak, jainkosak bezala, izaera duala izan dezake, hau da, bi arketiporen berezitasunak agertu ditzake, bere bizitzaren garapenean, mito klasikoan jazotzen den legez: a) Kore edo dontzeilaren arketipoa, eta b) lurpeko munduko erregina.

- a) *Kore edo dontzeilaren arketipoa*. Mitoaren hasieran, Pertsefone kezkarik gabeko neskatxa bat da, zelaian loreak batzen ibiltzen dena. Bere bizitzaren zati horretan, honako ezaugarri hauek agertzen ditu, besteak beste: harmena, aldaketarekiko irekitasuna, izaera moldakorra eta menpekotasuna.
- b) *Lurpeko munduko erregina*. Hadesek bahitu, amarekin berriro partzialki elkartu eta bere bahitzailearekiko harremana berregituratu ostean, Pertsefonek esperientziatik ikasten du, eta «*lurpeko munduko erregina*» bihurtzen da, alegia, «errealitatearen» eta inkontzientearen artean mugitzeko trebetasun berezia duen emakume heldu eta sentikor³².

Gure gizartean, euren burua Pertsefonerekin identifikatzen duten emakume gehienek dontzeilaren arketipoarekin bakarrik egiten dute bat. Jarraian, horrelako emakumeen ezaugarri nagusiei erreparatuko diegu.

BAT. «*Amaren alaba*» betierekoa

Arketipo honekin bat datorren emakume helduak, denboraren igo-
ra gorabehera, haurtzaroan eta nerabezaroan zuen menpetasunezko harreman-mota bera izango du amarekin. Amaren gustukoa, esanekoa eta adeitsua izateko ahalegin handiak egiten jarraitzen du, eta, ondorioz, bere identitate burujabe eta autonomoaren garapena mugatzen ere.

Amak, baldintza gabeko menpekotasun horren truke, alaba arrisurik txikienetik ere babesten jarraitzen du, umea zenean egiten zuen

³² Saiakera honen xedea ez da Pertsefonek lurrazpiko munduaren erregina gisa betetzen duen rola sakon aztertzea. Jainkosaren alderdi hori zehaztasun handiagoz ezagutzeko, honako liburu hauetara jo daiteke:

BOLEN, Jean Shinoda (1998): *Viaje a Avalon. La peregrinación de una mujer en la mitad de la vida*. Ediciones Obelisco, Argentina.

ZWEIG, Connie y WOLF, Steve (2008, 3. argitaraldia): *Vivir con la sombra. Iluminando el lado oscuro del alma*. Kairós, Bartzelona.

BOLEN, Jean Shinoda (2006): «Las diosas de la mujer madura...», *op. cit.*

bezalaxe. Demeter amarentzat, bere arketipoari datxekion legez³³, la-saigarria da bere babesaren premia duten menpeko pertsonekin harremanak izatea. Horregatik, beretzat oso pozgarria da bere alaba Pertsefone emakume otzan «heldu» bat izatea.

BI. *Emakume harbera*

Harbera izatea, hau da, bizitzak ekar ditzakeen aukera eta bide berriekiko irekitasuna, Korerekin identifikatzen den emakume helduaren ezaugarriarik positiboenetako bat da. Harmen horrek bizitzan ikuspuntu, norabide, zaletasun edo pertsona berriak aurkitzeko aukera ematen dio.

Beraz, harmena oso aberasgarria izan daiteke, bai eguneroko bizitzan, bai zalantzazko eta ziurgabetasunezko uneetan. Azken horien moduko egoeretan, Artemisa edo Atena jainkosa birjinen portae-raz bestela, horientzat emakume eraginkorrak eta adoretuak direla ez sentitzea oso mingarria baita, Pertsefone emakumea gai da harmenari eusteko, ezinegonik gabe eta ideiak argi ez izateagatik autokritika mingotsean erori gabe.

HIRU. *Konpromiso-eza ikasketetan eta lan-arloan*

Pertsona harbera izatea, zalantza barik, oso ezaugarri onuragarria da, baina akats ere bihur daiteke, norberaren bizitzaren norabidearekiko konpromiso-gabeziaren ondorioa denean.

«*Dontzeilak*» bere bizitzako hainbat arlotan —ikasketetan eta lanean, besteak beste— agertzen dituen konstantzia eta ardura urriak bere buruarekiko darabilen erantzukizun-gabezia horren isla dira.

Unibertsitatean, adibidez, Pertsefone neskek erraz galtzen dute adia eta unean uneko bulkaden eraginpean uzten dute euren borondatea; irakasleek agindutako lanak amaitzeko epeak ez ohi dituzte betetzen, eta talde-lanetan, ikaskide arduragabe gisa jokatu ohi dute. Agidanez, lan horiei guztiei aurre egiteak eskatzen duen konpromisoa bateraezina bide da bere antolakuntza- eta konstantzia-gabeziekin.

Ahalegin urriko jarrera horrekin batera, dontzeilaren arketipoarekin identifikaturiko neska askok euren ardurarik eza nahi gabekoa delako sententzia igortzen dute, eurak nor diren eta zer gaitasun eta muga dituzten jabetuko ez bailiran.

³³ Demeterren arketipoaren berezkoa den alderdi horri buruz luze mintzatu gara aurreko atalean.

Modu berean, konstantzia eta ardua urriegiak lanean ere erakusten dituzte, epe luzerako zereginetan, batez ere. Hala ere, emakumeok eroso daude eta «oso eraginkorrak izaten dira, berehala egin behar diren eta ahalegin handirik eskatzen ez duten zereginak betetz, laneko nagusia pozik eduki behar dutenean»³⁴.

LAU. *Tradizioz emakumezkoztat hartu den nortasuna*

Besteen gogoko izan nahiak eta euren burua inguruabarren eraginpean uzteko eta konpromisorik ez hartzeko joerak oso pertsona zaurgarri edo minbera bihurtzen dituzte Pertsefone emakumeak, gizarteak sotilki inposatzen dizkien iguripenen aurrean.

Gizarteak emakumezkoatasuna gozotasunarekin, otzantasunarekin, pasibotasunarekin, sedukzioarekin eta amorruaren errepresioarekin lotzen badu, esaterako, Pertsefone emakumea moldatu egingo da gizarteak beregandik espero duenera, horrela, inguruan dituenen onespena lortzearren.

Koreren kasuan, portaera-arau horiek indartu egiten dute —sozializazio prozesuaren bitartez— pasibotasun, gozotasun eta moldaeraztasunerako berezko joera, eta horrela, hemen aipatzen ari garen emakumezko estereotipoa betikotu egiten da.

Gizartearen eta arketipoaren arteko elkarreraginaren ondorioz, era horretako emakumeei zaila suertatzen zaie eurak bizi direneko gizarte emakumeentzat kaltegarriak diren gizarte-joerekiko sen kritiko eta aldarrikatzailez jokatzearren.

BOST. *Gizon misteriotsu eta malenkoniatsuenganako erakarpena*

Pertsefonek Hadesen moduko gizon ilun eta malenkoniatsuekin duen harremana ulertzeko, itzul gaitezene, une batez, Demeterren eta Pertsefoneren mitora eta bertan jasotako gertakariak esanguratsuenetako batzuetara. Hona hemen:

- Pertsefone zelaian lorea hartzen ari delarik, Hadesek (lurpeko munduko jainkoak) hura bere gogoz kontra bahitu eta bortxatu egiten du.
- Pertsefoneren amak, Demeterrek, gorabehera askoren ostean, alaba berekin itzultzea lortzen du.

³⁴ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 275. or.

- Amarengana itzuli aurretik, Pertsefonek onartu egiten du Hadesek eskainitako granada-ale batzuk jatea. Modu horrexetan gertatzen da horrelako gizonetako batzuk loturik.
- Amak granada-aleak jan ote dituen galdetuta, Pertsefonek gezurra esaten dio, ezetz, alegia.

Laburbilduz: Pertsefonek gezurra esaten dio bere ama maiteari eta Hadesi loturik jarraitzen du «*modu misterioetsuren batean*». *Zergatik? Zer hari ilun daude Pertsefoneren eta bere bahitzailearen artean?*

Galdera horri erantzuteko, hurbildu gaitezen harreman enigmatiko horren hiru alderdi esanguratsutara:

1. *Pertsefone Hadesen alde ilunaz maitemintzen da*. Lurpeko munduko jainkoak bere gogoz kontra bahitu, bortxatu eta, geroago, berak emandako granada-aleak jan ondoren, Pertsefone maitemintzen da berarekin. Beraren gizontasun misterioetsuaz, gizon malenkoniatsuaren eta izaera oinazetuaren halo horretaz, maitemintzen da. Pertsefone jainkosarekin identifikatzen diren emakumeek erakarpen handia sentitzen bide dute era horretako gizonetarako³⁵.

Erakarpen hori erakusteko, emakumeok polit egon nahi dute gizon itzaltsu horientzat, beroriei gustatzen zaiena (kirolak, zaletasunak,...) egiten dute, eta beraiei erakargarri suertatzen zaien emakume-irudira moldatzen dira. Erraza da ulertzen: maitemintzen daude eta euren gizonetako gustatzea nahi dute. Baina, zehazki, *zerk erakartzen ditu gizonetako nortasun konplexu horietatik?*

Dontzeila askorentzat, horrelako gizonekin harremanetan egotea euren bizitza konformistetara abentura- eta arrisku-dosi bat ekartzeko modua izan daiteke: «*gizonarekin egotea ikastea da, emakumea erakartzen duen beste mundu ezezagun batera hurbiltzea*»³⁶. Gizonaren itxura ilun edo gatazkatsuari ez deritzo arazo; aitzitik, «*gizonak abernuaren sakonerarekiko erakusten duen erakarpena ei da, hain zuzen ere, neskaren maite-grina pizten duena*»³⁷.

2. *Pertsefonek Hadesetikiko harremanaren ondorio onuragarriak hartzen ditu aintzat*. Pertsefoneren ikuspuntutik, Hades agian

³⁵ BOU, Nuria (2006): *Dioses y tumbas. Mitos femeninos en el cine de Hollywood*. Icaria, Bartzelona, 110. eta 126. or.

³⁶ *Ibid*, 110. or.

³⁷ *Ibid*, 110. or.

ez da beretzat gaiztoa, iluna edo itzaltsua, eta berarekiko harremana, agian, benetako bizipen «sakona» izan daiteke³⁸.

Aipatu ditugun ezaugarriak dituen gizon batekiko maitasunezko harremanaren alderdi sakon eta abenturazkoetako bat Korek bere amarekin duen harreman estuan eragiten duen aldaketa da. Berez, «dontzeila» batzuek gizonetik harreman zail horien ondorioz ematen duten lehenengo urratsa euren amekin gogor eztabaidatzea eta beroriengandik banantzea izaten da, horrela, euren maitasun-harremanari dagokion esparrua babestu ahal izateko. Borroka-une horiek amarenarenetik bereiziriko identitatea eraikitzen lagundu ahal diote Pertsefone emakumeari, kasu honetan, gizon baten ondoan.

Batzuetan, gizon horrekin gauzak ez doaz ondo, baina berdin dio; berak, dagoeneko, zertxobait gehiago ikasi du bere buruari buruz, bere *niari* buruz eta amarenetik bereiziriko bere identitateari buruz, eta hori, beretzat, hain emakume menpekoa izaki, itzelezko lorpena da. Baliteke amarekin itzultzea, gizonarekin geratzea edo biekin harremanetan jarraitzea, baina, kasu guztietan, hala ere, aurrerapausoa izan daiteke bere banakotasuna garatzeko bidean.

3. *Pertsefone ez da bere harremanaren alde ilunaz ohartzen.* Bestalde, gerta daiteke Pertsefone emakumea ez izatea kontziente horrelako gizon ilun eta zailekin egoteak bere bizitzara ekarri ahal dituen ondorio kaltegarriez, eta horrek eragotzi egiten dio ondorio horietatik babestea. Hain da handia erakarpena, ezen emakumeak ez baitu ez gizonaren, ez harreman horren alde ilunaz jabetzen.

Are gehiago, Pertsefone emakumeak bizitza osoan jarraitu dezake gizon zail batekin, berarekiko harremanak ematen dizkion onurak baliosten, eta ondorio kaltegarrienez jabetu gabe. «*Gizona maite egiten du, bere gorputz eta arima ematen dizkio, eta beti geratzen da beraren alboan, lurpeko munduko jainkosa legez*»³⁹.

³⁸ Christiane DOWNINGek lehen aipatutako «*La diosa. Imágenes mitológicas de lo femenino*» liburuan kontatzen duenaren arabera, berak ere sentitu zuen Hadesen arketipoko gizon batenganako erakarpena eta maite izan zuen gizon hura: «*Hadesek bere bizitzara zekarren sakontasun iluna irrikatzen zuen*», 60. or.

³⁹ *Ibid.*, 59. or.

SEI. *Gizonezkoaren agintearikiko otzantasuna bikote-harremanean*

Koreren eta Hadesen moduko gizon baten arteko harremana —bere alde ilun eta aberasgarriekin, aldi berean— nagusitasun-menpekotasun patrioiaren barruan garatzen da, non «*agintzen duena*» gizezkoa baita, duda barik. Dontzeila bestearen gustu, zaletasun eta ordutegietara egokitzen da, beraren agintea naturaltasunez onartuz.

Shinodaren iritziz⁴⁰, Pertsefone emakumea honako hiru gizon mota hauentzat izaten da bereziki erakargarria eta eroso:

- Emakumeok bezain gazteak eta eskarmentu gabekoak diren gizonentzat.
- *Emakumeon bakuntasun eta hauskortasunarekiko erakarpena sentitzen duten «gizon gogorrentzat».*
- Emakume helduekin eroso sentitzen ez diren gizonentzat.

Horrelako gizek, oso zakarrak, ilunak edo lotsagabeak badira ere, «*jainkoen modura*» errespetatuak eta tratatuak sentitzearen ziurtasuna berenganatzea lortzen dute, Pertsefone emakume batekin bikotea osatzu gero. Emakumearen alboan, inolako zalantzarik gabe, berak du agintea.

Halaber, bere harremanean zer gertatzen den gorabehera, Pertsefone emakumeak mundu guztiaren (familia, lagun eta abarren) aurka defendatzen du bere gizona, beste edonoren aurrean haren akatsak gutxietsiz, bertuteak goratuz eta «batzuetan» agertzen duen jarrera ezegokiari buruzko kanpoko edozein kritikatatik babestuz.

Hades gizonak, askotan, Korerekin duen harremanari esker lortzen du familia bateko eta komunitate bateko kide izatea. Beraren ezinbesteko laguntza hori gabe, horrelako gizon bat pertsona bakarti edo moldakaitz bihurtu daiteke⁴¹. Tankera horretako emakumeek, euren gizonenganako baldintza gabeko itzalaz, integratzen laguntzen diete gizonoi. Gizon horiek, halaber, euren akatsak ahaztarazten dizkieten autoestimu-dosi handiak jasotzen dituzte horrela.

Euren gizonenganako babes-jarrera hori ez da bakarrik Pertsefoneren berezitasuna. Gerraren Atena jainkosak ere babesten ditu eraginkortasunez bere gizonak, inguruneak ekar diezazkiokeen kalteetatik⁴².

⁴⁰ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 276. eta 277. or.

⁴¹ BOLEN, Jean Shinoda: «Los dioses de cada hombre...», *op. cit.*, 158. or.

⁴² CARDEÑOSO, Olga (2010): «Artemisa y Atenea. Diosas griegas y mujeres contemporáneas»; in MARCOS DE COSSÍO, Pedro (arg.): *Mitos femeninos. Laberinto de espejos*. Arcybel, Sevilla, 136. eta 137. or.

Bi jainkosek, euren artean ezberdintasun sakonak dauden arren, modu berean hartzen dute parte gizarte patriarkala iraunarazten, euren familiarteko harremanei eusten dien desoreka legitimatu eta sustatu egiten baitute, jakitun egonik nahiz jakin gabe.

ZAZPI. *Gezurra eta manipulazioa, onespena lortzeko estrategia gisa*

Pertsefonek eta Atenak, euren gizon tradizionalekin duten harreman babeslea ez ezik, beste alderdi erkide bat ere badute: eurek nahi dutena lortzeko (kanpoko helmugak, Atenaren kasuan, eta besteen onspena, Pertsefonerenean), beharrezko deritzotenean, gezurra eta manipulazioa erabiltzeko joera, hain zuzen ere.

«Dontzeilak» amaren, bere bikote-lagunaren eta bera bizi deneko gizartearen onspena nahi du. Arreta egiteko fronte gehiegi dira, koherentziaz eta zintzotasunez jokatzuz besteen gogokoa izatea lortu nahi duen horrentzat.

Zeregin zail hori lortzeko, Korek erraz «aldatu ahal du iritziz» entzulearen arabera, edo zenbait pertsona lausengatu, komeni zaiolako, edo gezurra esan, edo egiaren zati bat baino ez esan.

Epe laburrera, estrategia horiek oso baliagarri suertatu dakizkioke. Baina epe luzera, bere koherentziarik ezak berak nahi duenaren kontrakoa eragin dezake, hau da, bera gustuko izatea nahi duen pertsonak berarengandik urruntzea, harremanetan jarraitzeko erdigune edo identitaterik aurkitzen ez dutelako.

ZORTZI. *Onspen-premia eta pentsamendu ezkorrak*

Pertsefonek gehiegi behar du besteen gogokoa izatea. Horren azpian, bere buruan *onspen-premia* deritzon uste irrazionalak duen gehiegizko pisua eta pentsamendu ezkorren maiztasun handia daude, aldi berean.

— *Onspen-premia*. «Norberak ezagutzen eta estimatzen duen jende guztiaren babesa eta onspena behar dituela» uste izatean datza⁴³.

Beste pertsona guztien gustukoa izaten saiatzea ezinezkoa eta irrazionala bada ere, uste horri estu loturik dagoen pertsona etengabe ari da estimatua izateko borrokatzen, hau da, «beste batzuek guk

⁴³ ELLIS, Albert eta HARPER, Robert A. (1962): *Psicoterapia racional emotiva*. Herrero Hermanos Sucesores, Mexiko, 100. or.

egin behar dugunari buruz pentsatzen edo nahi dutenaren menpe bizitzen, norberaren helburuetan funtsatu beharrean»⁴⁴. Joera hori funtsezko atala da Pertsefoneren eguneroko bizitzan.

- *Pentsaera ezkorra*. Denbora igaro ahala, Pertsefonek dontzeila-ekin identifikaturik jarraitzen badu, gaztetan bezain itxura erakargarria eta gozoa izaten jarraitu nahi eta behar izango du. Ezinezko grina horrek arreta osoa bere buruan eta gainerako pertsoneri islatzen dien irudian jartzera eraman dezake, estutasunez. Pertsefone emakumeak atsekabea dakarkioten antsietatezko pentsamenduak izan ditzake, hala nola: «*zer-nolako itxura dut?; behar bezain azkarra ote naiz?; burutsua ematen dut?; erakargarri nago?...*», bai eta besteek berari buruz egingo omen dituzten balorazio negatiboan oinarrituriko pentsamendu ezkorrak ere: «*mundu guztia ohartu da oso zahar nagoela*», «*nire zimurak ikusita, itsusi nagoela pentsatuko dute*»...

Bere itxuraren inguruko ziurgabetasun horrek obsesionatzera eraman dezake. Egoera horretan dagoen Pertsefone emakume bat buru belarri sartuko da gazteago emateko edozelako ekin-tzetan. Horrek, halaber, bere adinaren eta janzkera, orrazkera edo makillajearen arteko ageriko desfasea sortu dezake, eta, ondorioz, betiereko alabaren bokazioan berriro murgilarazi.

BEDERATZI. *Depresio-arriskua*

Onespen-premiak, pentsamendu ezkorrek⁴⁵ eta pasibotasunak apurka-apurka depresioa garatzera eraman dezakete Pertsefone, baina

⁴⁴ CLARK, Lynn (1998): *SOS Help for Emotions: Managing Anxiety, Anger, and Depression*. Parents Press, Kentucky.

⁴⁵ *Onespen-premiaren eta depresio-sintomen arteko lotura frogatzen duten ikerlanak:*

CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (2005): «Gender differences in cognitive vulnerability to depression and behavior problems in adolescents», *Journal of Abnormal Child Psychology*, 33(2), 179.-192. or.

CARDEÑOSO, Olga eta CALVETE, Esther (2004): «Desarrollo de un Inventario de Creencias Irracionales para adolescentes», *Psicología Conductual*, 12(2), 289.-304. or.

CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (1999): «Creencias y síntomas depresivos: preliminares en el desarrollo de una Escala de Creencias Irracionales Abreviada», *Anales de Psicología*, 15(2), 79.-190. or.

Barne-elkarrizketaren eta depresioaren arteko lotura agertzen duten ikerlanak:

CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (2002): «Self-talk in adolescents: Dimensions, States of Mind, and Psychological Maladjustment», *Cognitive Therapy and Research*, 26(4), 473.-485. or.

beraren depresio mota ez da Demeterrena bezain deigarria izango, eta erraz gerta liteke, hasierako agerpenetan, inor ere ez ohartzea. Pertsefone gero eta etsiago dago, eta besteak urrundu egiten dira berarengandik.

Hazteko eta etsialditik irteteko, Pertsefone emakumeak bere arketipoa gainditu, eta konpromisoak hartzen eta beroriei jarraituz bizitzen ikasi beharko du. Bere kasa egin behar dio aurre bizitzari, bere erabakiak hartu, eta beroriez arduratu.

4. Gure gizartean Demeter eta Pertsefone aktibatzekeo estrategiak.

Sistema patriarkala iraunarazten

Lehen esan dugun legez, Demeter eta Pertsefone —Bolenek jainkosa minberak deritzenetako bi— gaurko gizartean oso aktibaturik dauden bi emakume-arketipo dira. Horren eraginez, emakumezkotasuna, oraindik ere, zaugarritasunarekin, autosakrifizioarekin edo menpekotasunarekin identifikatzen da nagusiki, eta ezaugarri horiexek definitzen dituzte emakumeok, beren izaeraren alderdirik osasungaitzenak badira ere.

Baina, zergatik gertatzen da hori, nahiz eta emakumezkotasunak, gero eta nabarmenkiago, arketipo horiek aise gaingitzen dituen? Zergatik eusten zaio, gaur egun, inkontziente kolektiboan, emakumeen psikologiaren eta «emakumezkotzat» hartzen denaren klixe horren arteko lotura estuari, generoen arteko berdintasuneranzko urrats itzulezinak ematen diren aldi berean? Zein da iraupen horren funtsa? Ezkutuko zer mekanismo ahaltzu baliatzen dituzte psikologiak, gizarteak eta politikak, bi jainkosa horiek aktibatzekeo?

Gure iritziz, hiru estrategia nagusik —oso eraginkorrak, agidanez— laguntzen dute, alde batetik, emakumeengan zaugarritasuna eta menpekotasuna aktibatzen eta, bestetik, inkontziente kolektiboan, ezaugarri horien eta «emakumezkoaren» arteko lotura betiketuzten:

- Arketipo horiei dagozkien eta tradizioz «emakumezkotzat» hartu diren ezaugarriak onuragarriak bailiran agertzea eta balioestea.
- Bi jainkosa horien akatsak, hau da, beraien alderik ilunena, ezkutatzea.
- Gure gizarteetan berez badauden bestelako emakume-eredu batzuk isilaraztea edo itzalpean gordetzea.

Hurrengo bi ataletan, zehaztasun handiagoz azalduko dugu nola aplikatzen diren hiru estrategia nagusi horiek, bi jainkosa minbera, banandu ezin eta arketipiko horietako bakoitza aktibatzekeo prozesuan.

Demeterren kasuan, bereziki, psikologiak amatasunarekin loturiko balio tradizionalen transmisioan eta iraunarazpenean duen eragina salatuko dugu. Zientzia horrek ez du berdintasunerako bidea ibili nahi, bere dokumentu eta ikerketetako askotan ez baititu kontuan hartzen gizartean, emakumeek amatasunarekiko duten rolaeren kontzeptualizazioari eta analisiari dagokienez, jazo diren aldaketak.

Pertsefoneri buruz aritzean, berriz, zientziaren eginkizunari, eta emakumeak —ama eta langile diren aldetik— guztiz eta oro har garatu daitezela eragozten duten egungo aldagai sozioekonomikoei (amatasunerako gizarte-laguntzarik eza, batez ere) erreparatuko diegu. Alderdi horiek guztiek menpetasuna eta babesgabetasuna aktibatzen dituzte emakumeengan.

Horrez gain, lehenago azaldu dugunaren harira, Demeterren eta Pertsefonerren arketipoak mitoaren sorburutik bertatik daude guztiz loturik, eta atzeraelikatu egiten dute elkar, bai mitologian, bai portaera-patroi horiek dituzten emakume askoren eguneroko bizitzan. Hortaz, jainkosa horietako bat aktibatzeak, ezinbestez, bestearen aktibazioa dakarrela ondorioztatu daiteke. Aipatu berri ditugun estrategia horiek, zalantza barik, oso baliagarriak dira, estereotipo tradizionala sustatzeko eta finkatzeko.

4.1. Demeterren arketipoaren arabeko amatasuna sustatzen duten gizarte-mekanismok

Sozializazioaren argiak emakumeen mundu fisikoa, emozionala, intelektual eta espirituala osatzen dituzten alderdi aberasgarri anitzetako batzuk baino ez dituela argitzen baieztatuz gero, ez genuke ezer berri agertuko. Duda-izpirik gabe, historian zehar ama-izaera da emakumeei buruz gehien ikustarazi den alderdia. Baina, atal honetan azalduko dugun legez, sozializazioaren argi horrek amatasuna ulertzeko eta gauzatzeko ikusmolde ezberdinik ere ez du ez ikusten, ez ikustarazten. Aitzitik, bizitzako esperientzia hori bizitzeko, pentsatzeko eta sentitzeko modu zehatz bat eta bakarra islatzen du.

Gure gizartean, amatasunari buruz mintzatzean, Demeterren arketipoa da erreferenterik baliatuena. Hau da, oso ama-sen ahaltsua duen, beste pertsona batzuk (seme-alabak, ilobak, bikotekidea...) zaintzen eta babesten dituen eta, maitasunak bultzatuta, bere inguruko pertso-

nengatik naturaltasunez sakrifikatzen den emakume batek irudikaturiko amatasunari buruz aritu ohi gara. Izan ere, Demeter AMA da, beste ezer baino gehiago.

Hori, berez, ez litzateke alde txartzat hartu beharko, arketipo horrek edozein pertsonarentzat oso onuragarriak diren ezaugarriak baititu, zaintzaren kulturari dagokionez. Baina, gure gizartean ulertzen den moduan, gehiegi aktibatzen da, jainkosa horrek berezko dituen eta horren laudagarriak ez diren beste berezitasun batzuekin loturik dagoen heinean, hala nola gizonen eta emakumeen sakrifizioaren arteko desoreka, mugak jartzeko zailtasuna, umeen hazkuntzan hartzen duen gehiegizko erantzukizun ez-konpartitua, bere burua erruzatzeko joera, autosakrifizioa edo, baita, depresioaren mehatxu iraunkorra.

Edonola ere, era horretako amatasuna hain alderdi ilun eta kaltegarriekin loturik egon arren, zientziak eta gizarteak, baldintzarik gabeko maitasunaren eta zainketen emaile eta sakrifizio-iturri agortezin gisa elikatzen dute AMAREN irudia, inkontziente kolektiboan.

Gaurko gizartean desoreka oraindik nabaria delarik, amatasunari buruzko ikusmolde desorekatu horrek itzelezko oinazea sortzen du, emakume askok —baita beste arketipo batzuetakoek ere— inkontzienteki, eta bakoitzak maila batean, barneraturik. Oinazea, alde batetik, maila pertsonalean nozitzen da, gehiegizko familia-erantzukizun ez-konpartituaren eraginez (batez ere, emakumeak etxean eta etxetik kanpo lan egiten badu, zereginak biderkatu egiten direlako), baina gizarte-mailan ere pairatzen da oinaze handia, ama-izaeraren kontzeptua aldatzeko eta, berdintasunez eta senidetasunez bizitzeko giza-eskubideak betetze aldera, amatasun/aitatasun konpartitu eta osasungarria lortzeko borrokatzen duten pertsonentzat.

Horrek, gainera, ez die eragiten gizon-emakumeen arteko harremanei bakarrik, ama-aita/semi-alaba harremanetan ere baduelako isla: Demeterren figura aztertzen hasi garenean esan dugun bezala, amatasuna ulertzeko modu horrek menpekotasuna, erru-sentsazioa eta ziurtasun-gabezia sortzen ditu umeengan.

Zalantza barik, ordea, irudipen kolektibo hori oso zaila da aldatzen, mendeetan zehar iragazi baita pertsonen garunetan, oso errotuta dauden ohituretan ere islatzen denez. Simone de Beauvurrek⁴⁶ salatzen duenez: «*emakumeei abstraktuki zenbait eskubide onesten zaizkie ere, aspaldiko jokabide batek eragozten du eskubideok ohituretan adierazpen zehatza izatea*».

⁴⁶ DE BEAUVOIR, Simone (1949): *El segundo sexo. Los hechos y los mitos*. Siglo Veinte, Buenos Aires, 16. or.

Gizarte-ohitura horiek, komunikabideetan zabaltzen diren edukiak, familiarterko harremanak eta abar xeheetasunez aztertuz gero, amatasunaren ikusmolde hori sendotzeko mekanismo askoren adibideak aurkituko genituzke. Baina, oraingo honetan, zientziak —batez ere psikologiak— erabiltzen dituen mekanismoak behatuko ditugu bereziki. Izan ere, horrek, ustez zientifikoa, objektiboa eta neutrala den ikuspuntu batetik, pisuzko eragina du iritzi eta ikusmolde horiek iraunarazteko prozesuan, geroago ikusiko dugun moduan. Zehazki, Garapenaren Psikologiaren arloan jorratuko dugu gure analisia, irakasgai horren edukiak, giza zientziekin, gizarte-zientziekin eta osasun-zientziekin loturiko ikasketetan oinarritzko irakasgaietakoa den aldetik, ikasle asko eta askori helarazten zaizkie eta.

Ikus dezagun nola amatasunari begiratzean darabiltzagun ikusmolde oker batzuk, «naturaltasunez» eta «bakuntasunez», isilean pasatzen diren, Psikologiako liburuetan, zenbait eduki irakastean.

Amatasunari buruzko ikusmoldearen alderdi okerrak:

1. Bere *semearen* atxikimendu-eragile bakarra den ama elikatzaile eta zaintzailea sustatzea.
2. Amatasunak berez dakartzan eta hain atsegingarriak ez diren bizipenak ezkutatzea.
3. Aitei umeen hazkuntzan dagokien eginkizuna gutxiestea.
4. Beste amatasun-era batzuk aintzat ez hartzea.

Jarraian, banan-banan jorratuko ditugu oker horiek guztiak:

4.1.1. *Bere semearen atxikimendu-eragile bakarra den ama elikatzaile eta zaintzailea sustatzea*

Gizartea aldatu egin den arren, Garapenaren Psikologiako eskuliburu-eruei, tamalez, oraindik ez zaie gauza bera jazo. Horrek, nolabait, badu bere zentzua, gaur egun irakasgai honetan ikasten diren adituetako gehienak —hala nola Bowlby, Spitz, Freud eta Wallon, besteak beste—, xix. mendean eta xx.aren hasieran bizi izan baitziren, orduko gizarte patriarkaletan murgildurik, eta bai amatasunari, bai emakumeei buruzko euren ikerketak baldintzatu zituen pentsamolde androzentrikoaren eraginpean.

Horrela, eskuliburu horietako gehienek edukietan, «bere semearen zaintzaile bakar» gisa irudikatzen da ama, amatasunaren ikusmolde horri eusteko esparru teoriko «zientifikoa» bat eskainiz.

Ikus dezagun argiago honako adibide hauekin:

ADIBIDE PRAKTIKOAK:

1. Adibidea

«Para Freud, la **madre**, al alimentar al bebé, reduce la tensión y le proporciona placer oral, y el vínculo se establece cuando el **niño** descubre que la **figura materna** es necesaria para reducir la tensión y satisfacer los cuidados biológicos.

Para los teóricos del aprendizaje, el **niño** asocia la **madre** con sensaciones agradables que derivan de la alimentación, el contacto físico... la estimulación, etc., y, con ello, la **madre** misma se convierte en fuente de refuerzo, lo que motiva la vinculación».⁴⁷

Adibide horretan azaltzen diren subjektuak, ama eta umea dira, baina berez ez dakigu semea ala alaba den. Aita behin ere ez da aipatzen, eta amarengan jartzen da umearen lotura eta atxikimenduarekin loturiko jardun guztia.

2. Adibidea

«Wallonek, bere teoria famatuan, gizakien garapena deskribatzeko aroak proposatu zituen. Adibide modura, emozioen aroari buruz (3-9 hilabete) mintzatuko gara.

Etapan honetan, «mimikan eta keinuetan oinarritutako komunikazio-sistema sortzen da **amaren eta umearen artean**. Hori dela-eta, Wallonek dio ingurunearekiko lehenengo harremana afektiboa dela. Horrela, ama, biologikoki beharrezko izatetik psikologikoki beharrezko izatera pasatzen da. Prozesu hori hirugarren hilabetean hasi eta bederatzigarrenean amaitzen da»⁴⁸.

Bigarren adibide horretan, berriro nabarmentzen da umetxoak amarekin duen afektuzko harremana, aita, berriro, aipatu ere egiten ez delarik. Umetxoak etapa hori arrakastaz gainditzea, testuak dioenari jarraituz, amaren ardura da, eta amarena bakarrik.

3. Adibidea

«(...) Se origina así un **enfrentamiento niño-madre**, siendo frecuente que ésta recurra al castigo, y a veces a los supositorios, lo que, además de ser un disparate, originará, a su vez en el niño, ira y ansie-

⁴⁷ LÓPEZ, Félix eta ORTIZ, María José (2000): «El desarrollo del apego durante la infancia», in LÓPEZ, F.; ETXEBARRIA, I.; FUENTES, M.J. eta ORTIZ, M.J. (arg.): *Desarrollo afectivo y social*, Pirámide, Madril, 42. or.

⁴⁸ LIZASO, Izarne eta APODAKA, Marije (2008): *Giza Garapenaren ereduak I*. Udako Euskal Unibertsitatea, Donostia, 166. or.

dad, haciendo más difícil la disciplina voluntaria; el niño ha tomado miedo. Es mejor dulcificar las exigencias, y premiar cuando el niño se muestra dócil...»⁴⁹

Adibide horretan, berriz ere, lotura bakarrik amaren eta umearen arteko kontua da, eta, jakina, aita ez da inon ageri. Halaber, amak arauak ondo ez baliatzea umearengan eragin ditzakeen ondorio ikaragarrietako batzuen berri ere ematen da.

Askotan, irizpide oker horiek liburuen aurkibidea irakurtzeaz batera igar daitezke, Garapenaren Psikologiari buruz diharduen eta ikusi berri dugun aipamena jasotzen duen gaurko liburu horrekin⁵⁰ gertatzen den bezala. Bosgarren kapituluan, «*La motivación de la conducta. La vida afectiva*» izenburukoan, «*Desarrollo afectivo. Relación madre-niño*» goiburua duen atal bat dago.

Ez da bakarrik itxura. Izan ere, umeen afektuzko bizitzari buruzko kapitulu osoan zehar, behin ere ez da aita aipatzen. Are gehiago, atal osoan hiru hitz baino ez dira letra lodiz nabarmendu (nahastu ez gaitzen!): «**vínculo madre-hijo**»⁵¹. *Aita* eta *alaba* hitzak ez dira inon nabarmentzen, kapitulu osoan azaldu ere ez baitira azaltzen.

Hautatu ditugun teoretan argi geratzen da, ordea, eskuliburu ia guztietan, arazoren bat badago, amaren errua dela. «Ama gaixoak! A zer-nolako pisua jasan behar duten euren bizkarretan!».

4. Adibidea

«Al principio, ciertas respuestas reflejas del hijo⁵² promueven la protección de la madre y el contacto entre ambos, mientras que otro tipo de respuestas (gestos, llanto, sonrisa) actúan como señales de comunicación social. Los seres humanos tenemos una necesidad innata de interacción social, que como mejor se satisface al principio es mediante el contacto físico con el cuidador. La madre también está dotada biológicamente para responder al hijo, tendiendo al contacto corporal (abrazos y caricias) y a la comunicación verbal y gestual con él.»⁵³

⁴⁹ YUSTE, Nazario; GÁZQUEZ, José Jesús y PÉREZ, María del Carmen (2007): *Psicología del desarrollo en la escuela. Tomo 1*. Grupo Editorial Universitario, Almería.

⁵⁰ *Ibid.*, 240. or.

⁵¹ *Ibid.*, 239. or.

⁵² Beltzean ageri dena geuk nabarmendu dugu, inkoherentzia argiago ikustarazteko.

⁵³ FERNÁNDEZ, Eduardo; JUSTICIA, Fernando eta PICHARDO, María del Carmen (2007): *Enciclopedia de Psicología Evolutiva y de la Educación. Tomo I*. Ediciones Aljibe, Málaga, 160. or.

Zenbait eskuliburutan, atxikimenduarekin loturiko gaietan ikuspegia aldatuz joateko eta lehenagoko okerretan berriro ez jauzteko ahalegiak bistakoak badira ere, inkontzientearen zamak salatzen bide ditu beraien egileen kontraesanak, planteamenduen inkoherentzia eta, finean, aldaketa horren inguruko euren benetako iritziak, laugarren adibidean ikus daitekeenez. Edozelan ere, horien defentsan jo beharrean gaude, beraiek behintzat diskurtso tradizioaletik irteten saiatu dira eta.

Adibide horiek irakurrita, aise ondorioztatu ahal dugu ideia errepiakakor batzuk etengabe ari direla sustatzen ama *elikatzaile*, *zaintzaile* eta *atxikimendu-eragile bakartzat* aurkezten duen ikusmolde murrizta. Lau sail handitan laburbilduko ditugu ideioak:

- a) *Umeen atxikimendu-premiak modu osasungarrian asetzeko ezinbestekoa den ama elikatzaile eta zaintzailea.*
- b) *Amak eta semeak osaturiko bikotea.* Testu-liburuak, oro har, amak eta semeak baino aipatzen ez dituzten adierazpidez betarik ageri dira. Nahiz eta «lañotasunez» pentsatuta hizkuntzaren erabilerekin loturiko oker huts bat dela iruditu, denok dakigu hizkuntza pentsatzeko modu ezberdinen isla dela. Gaztelerazko testuetan behin eta berriz agertzen den «hijo» berbaren barruan «hija» ere badagoela argudiatu daiteke, genero maskulinoaren erabilera generikoa eginik, baina «madre» hitzak ez du bere barnean «padre» hartzen.
- c) *Aita aipatu ere ez da egiten*, edo beraren zereginak eta abileziak baino ez dira azaltzen, eranskin gisa.
- d) *Amatasun ezegokiek oso eragin kaltegarria dute* umetxoaren garapenean. Nahiz eta umeen garapen-aldi minbera horretan amatasun ezegokiak ekar dezakeen kalteari dagokionez ustezko kontzientzia izan, inon ere ez dira azaltzen aitatasun ezegokiek edo aitatasunik ezak umetxoaren garapenean dituen ondorioak. Ikuspegi murriz horrek *presio eta erru-sentsazio* handiak eragiten ditu amengan, euren seme-alabek bizitzan zehar garatu ditzaiketen arazoaren errua euren buruari egozteko joera izaten baitute. Ikuspegi berorrek, neurri berean, askatu egiten ditu aitak, euren seme-alaben portaeren jatorrian duten erantzukizunetik.

4.1.2. *Amatasunak berez dakartzan eta hain atsegingarriak ez diren bizipenak ezkutatzea*

Garapenaren Psikologiari buruzko eskulibururik gehienetan, eta amatasunaren inguruko beste testu askotan, isilean amatasun-eredu

trinko eta desorekatu bat islatzen duten arren, nekez aurkitu daitezke ama izateak emakumeei eskatzen dien energia fisiko, psikologiko, espiritual eta ekonomiko eskergaren gaineko informazioa eta hausnarketak.

Dirudienez, egiazko emakumea, amatasunaren aureolaren atzean ezkututzen den emakumea, bere bizipenak, pozak, etsipenak, nekea, betetasuna, amorrua eta abar gordean eduki nahi dira. Bizitzako aldi horretan izan daitezkeen giza sentimendu logikoen sorta osoa «bere umearekin zoriontsu dagoen amaren» fatxadaz mozorrotu nahiko babiliztan; amatasunaren bizipenean bi errealtate baileuden: munduak agertzen duena (Ama Handiaren arketipoarekin bat datorrena) eta norberaren barnean bizitzen den errealtatea (Ama Handiaren arketipoarekin bat ez datorrena). «Amatasunaren mistikaz» hitz egin genezake.

Argi-ilunezko joko horren bidez, ama eskuzabal, nekaezin eta beti zoriontsuaren arketipoak, Demeterren arketipoak, ia ukigabe irauten du, bere horretan, gizartean. Hala eta guztiz ere, txanponaren beste alde ere hortxe dago, baita Demeter emakumeentzat ere, horiek amatasunak dakarren gehiegizko sakrifizio horren ondoriozko etsipena eta erresumina adierazten ez badituzte ere.

Egia ezkutatzekeo prozesu horretan, Carme Valls-ek «*Mujeres invisibles*» bere liburuan aurkezten dituen muturreko egoeretara heldu gaitzke. Liburu horretan azaltzen denez, zientziak erditu osteko aldiarekin zerikusia duten oinarrizko prozesu fisiologiko eta psikologikoak bazterrean uzteko joera du, eta ez ditu aintzat hartzen nekea, atsedean hartu beharra eta, umetxoa zaintzeaz batera, norbera ere zaindu beharra.

Doktore katalan horren ikuspuntutik⁵⁴ «*lau emakumetik batek tiroide guruinaren hantura izaten du erditu ostean. Tiroiditisa ageri-agerian nahiz subklinikoki azaltzen da, erditu osteko berrogei bat egun iraganda, haurdunaldian zehar galgatutako immunitatea berreskuratzen denean. Une horretan, emakume batzuegan berriro agertzen dira gaitasun autoimmuneak, artritis erreumatoidea, esaterako. Kasu guztietan, neke, tristura eta depresio-sentsazioa hautematen da, serotonina urriegiak —tiroxina-malekin zeharkako lotura duenak— neurotransmisoreetan eragiten duen asalduraren zioz».*

Era horretan, erditu berri diren 100 emakumetik 25ek aldi horretan nozitzen duten nekearen sorburua erditu osteko patologia ikusezin bat da⁵⁵ —ikusezina da, izan ere, ez hauteman, ez ikusi nahi ez delako—, eta herrialde garatuetan oharkabean jazo ohi da ia beti, «erditu osteko

⁵⁴ VALLS, C. (2006): *Mujeres invisibles*. Random House Mondadori, S.A., Bartzelona, 105.-106. or.

⁵⁵ *Ibid.*, 105.-106. or.

depresioarekin» nahasten delarik. Bestalde, guztiz harrigarria bada ere, prozesu hori berrogei eguneko aldi ospetsua amaitu eta berehala gertatzen da, hots, emakumeak berriro bizimodu normalari ekiteko ustez behar dituen berrogei egunak iragan eta gero.

Isilean gordetako patologia horrez gain, emakumeek anemiak, ferropeniak eta beste gaitz batzuk ere pairatu ohi dituzte aldi horretan, edoskitzaroaren eta ardurak eta zereginak ez banatzearen ondorioz nekearekin loturik. Horrek denak sorrarazten du emakume bartzuen ezintasun-sentsazioa, seme-alabak zaintzeko ardurari aurre egin ezingo diotelako sentsazioa, alegia (eta horrek ere laguntzen du, neurri batean, erditu osteko depresio deiturikoa jazoarazten). Ikusi ezinezko patologia horrek bakardade etsian murgildurik eduki ditu emakume asko hainbat urtez, erditu osteko depresioarekin lotu izan diren tristura eta nekea⁵⁶ bere seme edo alabarekiko arbuiotzat jotzen zirelako, nahiz eta, berez, suspertze fisiko naturalaren eta laguntza-gabekiaren ondorio izan.

Alderdi horiek guztiek emakumearen ongizatean edo ondoezean izan dezaketen eragina aintzakotzat hartzeak automatikoki bultzatu beharko luke gizartea beraren zaintza bermatzeko neurriak hartzera: amatasun- eta aitatasun-bajak luzatzera, umeak zaintzen laguntzeko zerbitzuak antolatzea, gizonak emakumearen eta umearen zainketan dagokion arduraren bere gain hartzea, emakumearen eta familiaren zentzuzko zainketa ahalbidetzeko moduko lan-ordutegiak eta baimenak bilatzea... Baina, aurrerapauso txikiak ematen diren arren, behar diren neurriak ez dira hartzen ari, eta emakumeak bizitzako aldi horretan duen minberatasuna eta bera zaindu beharra ezkututzen jarraitzea hautatzen da, gizarte-eragileek eta instituzio politikoek errealitate horrekiko erakusten duten sentsibilitaterik eza agerikoagoa izan ez dadin.

Prozesu horretan, Demeter Ama Handiaren arketipoa aliatu nagusia da: dena egin ahal duen amaren irudia, eginbehar guztiak eta denen nahiak bete ahal dituen amarena; nekea, etsipena eta ez berak ez inork ikusten eta onartu nahi ez duen amorrua sentitu arren, atsegin eta eskuzabal jokatzeko duen amarena. Hain barneraturik izan dezake emakumeak arketipo horren indarra, ezen nekaturik egoteak berak ere sentiaraz baitezake errudun, eta bere burua zaintzea eta atsedean hartzea luxu onartezintzat ikusarazi.

⁵⁶ ARBAT, Agnès eta DANÉS, Imma (2003): «Depresión postparto». *Med Clin (Barc)*, 121(17), 673.-675.

Zenbatespenen arabera, gaixotasun horrek emakumeen %13 inguru jotzen ditu, erditu ostean, eta %26 ere izan daitezke, ama nerabeen kasuan.

Egia ikusezin bihurtzean edo zuzenean ezkututzean datzan gizarte-estrategia orokor horren aurrean, amatasunak berez dakartzan sentipenen aukera osoa —atsegina, sakrifizio esanguratsua, atsedean hartu eta mugak jarri beharra, maitasuna, bakarrik egoteko premia...— jarri behar genuke argipean, emakumeentzat zein gizonentzat justuagoa den mundu bat eraikitzeari begira, seme-alaben hazkuntza modu osasungarrian eta konpartituan garatzeko. Emakumeak, beste edonork bezalaxe, zainketak behar dituela onartzea ezinbestekoa da generoko berdintasuneranzko bidean.

4.1.3. Aitei umeen hazkuntzan dagokien eginkizuna gutxiestea

Amatasunaren berezko sentimendu guztiak argipean jarri beharra-ekin batera, aitari hazkuntzan dagokion zereginaren garrantzia ere komeni da argitzea.

Emakumezko eta gizonezko ikertzaile batzuek dagoeneko aztertu dituzte gizonen aita-gaitasunak. Baina Garapenaren Psikologiari buruzko eskuliburu gehienetan, lehen ere esan dugunez, ez dira azterlan horien ondorioztapenak aipatzen, emakumeen trebetasunen ondoan, eta argitalpen espezializatuagoetara jo behar da, informazio hori aurkitzeko.

Emaitzak argiak dira. Aitak amak bezain trebeak dira, hazkuntza-zereginetan. Hona hemen horri buruz sarrien aipatzen diren ondorioztapenak⁵⁷:

- Aitak amak bezain ondo zaindu ahal ditu eskola-adineko bere seme-alabak: etxeko lanak egin, ikastetxera eramateko askaria prestatu, umeak ohera lagundu, beraiekin jolastu, zerbait esateko edo mimoren bat egiteko beraiekin eseri⁵⁸.
- Aita ama bezain sentikorra da bere umetxoen gozamen-urru-mekiko zein estatusnezko negarrekiko, eta amaren joera bera agertzen du egoera horiei erantzun egokia emateko, hau da, umea ukitzeko, begiratzeko, hitz gozoak esateko edo ondoezaren eragileak desagerrarazteko.⁵⁹

⁵⁷ Ondoren aipatzen diren ikerketa guztiak bai Susan Golomboren «Modelos de familia» liburuan, bai Rooss D. PARKE-ren «El papel del padre» izenburukoan daude jasota.

⁵⁸ RUSSEL, Graeme eta RUSSEL, Allan (1987): «Mother-child and father-child relationships in middle childhood», *Child Development*, 58, 1.573.-1.585. or.

⁵⁹ PARKE, R.D. eta SAWIN, D.B. (1980): «The family in early infancy: social interactional and attitudinal analyses»; in PEDERSEN, F. (arg.): *The father-infant relationship: observational studies in a family context*. Praeger, New York.

- Umeek estutasun-uneetan, aitarengana baino lehen, amarengana joateko agertzen duten joera amarekiko harreman sako-nagoak eragiten du. Aitak seme-alabekiko zenbat eta inplikazio handiagoa hartu, orduan eta maizago joko dute seme-alabek kontsolamendua aitarenean ere bilatzera.⁶⁰
- Aitak, amak bezalaxe, negar-mota ezberdinak bereizteko gai di-ra.⁶¹

Edonola ere, arloko aditu gehientsuak emaitza horiekin ados badaude ere, alde garrantzitsuak daude beraien artean emaitzok interpretatzean. Ezberdintasunak azaltzeko, Ross D. Parkeren «*El papel del padre*» liburuaren zati bat eta Susan Golomboken «*Modelos de familia*» izenburukoaren beste zati bat erkatuko ditugu.

2. taula

Aitaren eginkizunaren garrantziaren inguruko ezberdintasun teorikoak

Ross D. Parke «El papel del padre»	Susan Golombok «Modelos de familia»
«Gaur egun, aitaren gaitasuna zalantzan ez jartzeaz gain, bistakoa da beraren eginkizunaren garrantzia, bai lotura emozionalerik dagokienez, bai gizarte-, ezagumen- eta hizkuntza-garapenarekin duen loturagatik ere. Hala-ber, aitaren jardunaren garrantzia ez datza bakarrik berehalako eta epe laburrerako efektuetan; aitzitik, jardun horren ondorioek seme-alaben etorkizun osoan zehar izango dute oihartzuna, horien eboluzio-prozesu osoa moldatzen duten karaktereak eragingo ditu eta» ⁶¹	«Argi dago inplikazio handia agertzen duen aita izatea ez dela txarra seme-alabentzat». Eraginen bat badago, onuragarria da» ⁶²

Adibide horietan ikus daitekeenez, Ross D. Parkek aiten inplikazioak seme-alaben garapen kognitibo, emozional eta sozialari dakartzkion onura ugariak nabarmentzen dituelarik, Susan Golombokek, ordea, ai-

⁶⁰ COX, M.J. eta besteak (1992): «Prediction of infant-mother and infant-father attachment», *Developmental Psychology*, 28, 474.-483. or.

⁶¹ FRODI, A.M.; LAMB, L.; LEAVITT, L.A.; DONOVAN, C.; NEFF, C. eta SHERRY, D. (1978): «Fathers' and mothers' responses to the faces and cries of normal and premature infants», *Developmental Psychology*, 14, 490.-498. or.

⁶² PARKE, Ross D.: «El papel del padre», *op. cit.*, 14. or.

⁶³ GOLOMBOK, Susan: «Modelos de familia...», *op. cit.*, 49. or.

taren aldetik lehen aipatutako trebetasun apropos berberak aurkitu eta behatu arren, ez du aita hazkuntza-zereginetan erabat inplikaraztearen aldeko jarrerari heltzen.

Berez, Susan Golombokek oso modu sotil eta zeharkakoan islatzen ditu bere erresistentziak, aiten inplikazioak euren seme-alaben garapenean izan dezakeen eraginari garrantzia kenduz. Honako ondorio hau ateratzen du berak: «aitak trebeak dira, eta hori oso ondo dago, baina, etxean ez badaude eta euren betebeharrak betetzen ez badituzte ere, ez da ezer gertatzen». Bere ideia «modernoak», batzuetan, iragandako garaietako hausnarketekin nahasirik ageri dira. Hona hemen:

Aitak bere seme-alabekin zer-nolako harremanak dituen aztertu aurretik, aintzat hartu behar da aitaren laguntza ekonomikoa eta soziala oso garrantzitsuak direla. Emakumeek ez badute fakturak ordaintzeko kezka euren gain hartu behar eta, aldi berean, familiarteko bizitzaren gorabeherei buruz mintzatzeko oso hurbileko norbait dutela ikusten badute, askoz hobeto sentituko dira eta askoz hobeto beteko dute euren ama-eginkizuna.⁶⁴

Beraz, aldaketa eta kontraesan ugariko garai honetan, aitei, euren trebetasunei eta, bereziki, aitek umeen garapenean duten garrantziari dagokienez, ideia tradizionalenak zein berdintasuna aldarrikatzen duten ideiak aurkitu ahal ditugu gaurko literatura zientifikoan. Testu batzuek ideologikoki gizonen eta emakumeen arteko berdintasun handiagoko mundu bat sortzen laguntzen duten bitartean, beste batzuek, aitaren trebetasunei buruz emaitza positiboak aurkitu arren, ama seme-alaben zaintzaile nagusia izatea justifikatzen jarraitzen dute zeharka, aitari trebe, baina ez beharrezko, baiteritzote.

Jakina, azken irakurgai horiek berriro ere Demeter Ama Handiaren arketipo sustatuegia elikatzeraz datoz, ama hazkuntzako figura nagusi eta ezinbestekoa delako uste berdintasun-hausleak betikotu eta bidez-kotu egiten dituztelako.

Hortaz, arketipo horren ideologiak zientzia modernoaren esku sotilaren abala du, berriro ere, hazkuntza gizonen esku-hartzearen beharrik ez duen «emakume-lurralde tradizional» gisa aurkezturik. Berez, Demeter emakumeek, edo emakume batzuen Demeter zatiak, erago-tzi egiten diote euren lurralderako irispidea gizonari. Gizonek euren aita-eginkizuna emakumeek euren ama-eginkizuna hartzen duten sa-kontasun eta inplikazio berberaz hartzea eraso baillitza hautematen

⁶⁴ GOLOMBOK, Susan (2006): *Modelos de familia. ¿Qué es lo que de verdad cuenta?*, Graó, Bartzelona, 38. or.

dute emakumeok, euren barreneko muinean. Beren espazioa da eta ez diote inori bertan sartzen utziko: «*She claims to have been abducted by «pirate man»... usurped her role as mother...⁶⁵*».

4.1.4. Beste amatasun era batzuk aintzat ez hartzea

Ikasten ari naizenaren arabera, nire seme-alabei bizitza betetasunez bizitzen irakasteko modurik onena ez da neure bizitza sakrifika-tzea, neure bizitza betetasunez bizitzea baizik.

Nancy McBrine Sheehan, *Meditación*⁶⁶

Gaur egungo emakumea tradizioz emakumezkoen zeregintzat hartu izan diren egitekoetatik harago garatzen den arren, amatasunera heltzean, Ama Handiaren arketipoari aurka egiten jarraitu beharrean ikusten du bere burua, aurreko ataletan nabarmendu dugun eran. Hazkuntzan amari —aitaren aldean— ustez dagokion erantzukizun handiagoa, mugarik gabeko autosakrifizioaren balioa, amaren arketipoarekin bat ez datozen sentimenduak ezin adieraztea, edo emakume askori «eurek izan nahiko luketenaren» moduko ama izateko eta, aldi berean, kanpoan lan egiteko zailtasunagatik sortzen zaien erru-sentsazioa⁶⁷ oso faktore hertsigarriak izan daitezke edozein emakumeren ama-bizipe-nean, eta, ondorioz, bizitzaren berezko alderdi horren garapen osasun-garria oztopatu.

Dena den, oztopo horiek guztiak gorabehera, beste amatasun-eredu batzuk ari dira indartsu azaleratzen, eta «*ama izatearen esa-*

⁶⁵ AGHA-JAFFAR, Tamara (2002): *Demeter and Persefone. Lessons from a myth*. McFarland and Company, North Caroline, 26. or.

⁶⁶ NORTHROP, Christiane (1999): *Cuerpo de mujer, sabiduría de mujer. Una guía para la salud física y emocional*. Ediciones Urano, Bartzelona, 563. or.

⁶⁷ IMAZ, Elixabete (2006): «¿Y vosotros para cuándo? El deseo, la decisión y el momento adecuado para la paternidad en las parejas vascas contemporáneas», *Vasconia*, 35. lbki., 333.-343. or.

Egile honek, euskal biztanleek amatasun/aitatasunaren inguruan hartzen dituzten erabakiei buruzko datu objektiboak aztertu ondoren, erru-sentimenduari dagokionez aiten eta amen artean dagoen ezberdintasuna nabarmentzen du; honelaxe azaltzen du bere ondorioztapenetan: «*Hala ere, azpimarratu egin behar da inkestetako askotan hautematen diren erru-sentipenek eta autosakrifizio-exijentziak, amatasunaren gaineko beste ikerlan batzuetan ere nabarmendu direnek, ohartarazten digutenez, umeen sor-kuntzaren eta hazkuntzaren inguruan ditugun jarrerak ulertzeko, behar besteko garrantzia eman beharko genieke ama-ereduei, generoko estereotipoei eta sexu bakoitzeko pertsoneri esleitzen zaizkien roleri*», 343. or.

nahia» definitzen deneko ispilu kolektibo murriztailean bere tokia hartzeko borrokatzen. Eredu horietatik, eta erkatzeko eta aldarrikatzeko modu gisa ere, euren ama-izatean Artemisa, Atena edo Afrodita arketipoei erantzuten dieten emakumeen bizipenik esanguratsuenetako batzuk nabarmenduko ditugu.

Artemisa eta amatasuna

Ekar dezagun gogora Artemisa arketipoko emakumeen edo beste arketipo nagusi batzuk dituzten emakumeen Artemisa-zatiaren berezitasunak burujabetasuna, bere iritzien indarra, emakume-izaerarekiko bere lotura sakona eta berdintasunaren aldeko borroka nekaezina direla. Era horretako emakumeek hauxe sentitzen dute: «*badakit nor naitzen, zer nahi dudan eta, hori lortzeko, zer prezio ordaintzeko prest na goen.*»⁶⁸

Horrelako ezaugarriak dituen emakumeak, ama egiten denean, hainbat alderditan erakusten du emakume-izaerarekiko eta bere uste sendoen indarrarekiko lotura sakon hori: erditzea bere gorputza eta berezko erritmoak errespetatzen dituen prozesu legez eta ondo prestatutako emagin begirunetsuen ezinbesteko laguntzaz bizitzen utz diezaioten lortzeko borrokan, esaterako. Emakume horrek, zentzuzkoa denez, ez du gustuko medikuek bere gorputzean gehiegi esku hartzea, gaur egun hain ohikoa dena; izan ere, bere barrenean gutiz ziur dago «*emakumearen gorputza jakintsua dela*» eta une bakoitzean zer egin behar den badakiela. Horregatik, emakumeen Artemisa-zatiak bere gorputzaren gainean erabaki nahi du, eta horren alde borrokatzen du.

Bere sentipenekiko lotura horren ildotik, era horretako emakumeak bere burua zaindu eta beste pertsonak errespetuz tratatzea nahi du, eta horrexegatik aldarrikatzen du atsedean hartzeko bere eskubidea, susperitzeko eta osasuntsu jarraitzeko ezinbesteko modua den aldetik. Jarrera horrek, zentzuari kasu eginik osasungarria bada ere, zuzen-zuzen jotzen du inguruko diskurtso paradoxiko ezagunaren kontra, aurreko atalean azaldu dugunez, inguru horrek ez baitu emakumeen atsedean hartu beharra eta osasun-eskubidea aintzat hartu izaten, Demeter arketipoarekiko gehiegizko identifikazioaren eraginez.

Emakumeen sentimenduak eta osasuna aintzat hartzen ez dituen jokabide miopere horrek haserre eta amorrutaz biziak sortzen ditu Artemisa

⁶⁸ BELLI, Gioconda (2004, 4. argitaraldia): «Apogeo», *op. cit.*, 27. or.

emakumearengan, eta amorru horrek bere inguruneko beste gizon eta emakumeei kontra egitera (batzuetan, «neurritz gain» ere) eramaten du Artemisa. Demeterren arketipoan iltzaturiko gizarte-rola, ama auto-sakrifikatuarena, menpekotasunaren sintomatizat eta genero-berdintasunaren kontraktotzat hartzen du emakume horrek, eta ez da inondik ere berarekin identifikatzen. Berak, aitzitik, aitari hazkuntzan dagokion inplikazioa hartzea exijitzen du, guraso-erantzukizunaren funtsezko atal baiteritzo, eta ez ditu onartzen «gizonen gaitasunik eza» edo gizonen eginkizunak euren umeen eboluzioan eragin txikia duela defendatzen dituzten argudio tradizionalak.

Nola jokutzen du Artemisa amak, bere seme-alabekin eratzen duen elkarrekintzari dagokionez?

«*Lynn Andrews-ek idatzi zuenaren arabera, bi motatako emakumeak daude: Lur motako Amak eta Ortzadar Sortzailearen motakoak. Lur amek euren seme-alabak zaindu eta elikatu egiten dituzte, eta oso ondo sentitzen dira hori eginez; izadia den ama handiaren adierazpen dira. Horrelako amak Demeter jainkosaren arketipokoak lirake. Gure gizarteak «ama on» deritze era horretako emakumeei. Ortzadar Sortzailearen erako amek, berriz, seme-alabak estimulatu egiten dituzte, baina ez dute mahaia otordurako prest eduki beharrik sentitzen, ordea»⁶⁹. Sail horretako amak Artemisaren arketipokoak lirake.*

Hortaz, Artemisa amak ez dira lurraren jainkosa amatiarren modukoak izaten. Euren nortasunaren berezitasun nagusia ez da ama elikatzaille, zaintzaile eta babeslearena. Era horretako emakumeak ez dio iraganaldiari, hau da, bere seme-alabak titiko umetxoak eta menpekoak zireneko garaiari, malenkoniaz begiratzen. Arketipo horri erantzuten dioten amek intentsitate handiz bizi ohi dute euren amatasuna, eta euren bizitzaren funtsezko atal deritze alderdi horri, baina aurrerantz begiratzen dute, eta asko gozatzen dute seme-alaben hazkunde-prozesuaz eta bizitzak dakartzan bide berriak beraiekin ibiltzeaz. Shinodaren esanetan⁷⁰, «*bere umeen burujabetasuna sustatzen duen eta euren kasa moldatzen irakasten dien ama da*».

Era horretan, Artemisa amak harreman sakratua, senezkoa, begirunezkoa eta, aldi berean, hurbila eta urruna islatzen du bere seme-alabekiko elkarrekintzan. Hala ere, hartz ama bezain basatia da bere umeak defendatu eta babestu behar dituenean. Horrexegatik da hartz emea jainkosa hori irudikatzeke erabiltzen diren ikurretako bat, basa-bizitza-

⁶⁹ NORTHROP, Christiane: «Cuerpo de mujer, sabiduría de mujer...», *op. cit.*, 561. or.

⁷⁰ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 97. or.

ren jainkosari dagokiona, hain zuzen ere. Bere umeak defendatu eta babestu egiten ditu, baina, halaber, berea ez den beste bizitza propio bat duten gizaki oso gisa hautematen ditu haiek. Autonomoak izaten laguntzen die eta, halaber, berotasuna eta babesa ematen dizkie, «euren kasa hegan egin» nahi izan dezaten.

Atena eta amatasuna

Lehen ere esan dugunari berriro helduz, Atena arketipoko emakumea ama estratega, bere emozioekiko urruna, adimentsua, eraginkorra eta praktikoa da.

Atena amak ere ez du bere burua Ama Handiaren arketipoarekin identifikatzen. Atena, berez, Demeter «Lur Amaren» guztiz kontra-koa dela ere esan genezake, berak ez baitu ama-izaera senezko helburu gisa sentitzen, ez eta Demeterri bere besoetan umeak edukitzeak ematen dion izugarrizko atsegina edo umeok ez handitzeko nahia ere. «*Atena emakumea, Demeter ez bezala, prest egongo litzateke «umetoki bat alokatzeko», ahal izan bezain laster, horrela ume baten ama izateko aukera ziurtatzearren. Eta, horretarako, «adopzioko» amak baliatzen ditu, bere seme-alabak bere orde zainduko dituzten etxeokandrea eta umezainak kontratatuz*». ⁷¹

Ondoriozta daitekeenez, Atena ama, Artemisa ama bezala, ez da atsekabetzen bere seme-alabak hazi egiten direlako. Oso aitzitik, «*beraiekin mintzatu eta proiektuak egiteko adina izateraino haz daitezen irrikatzen du, munduan zer dagoen ikustera berekin eramateko*». ⁷²

Mota horretako amak dirdira islatzen du seme-alaba lehiakorrak eta jakin-min intelektual handikoak dituenen, eta berak ematen die aholku, adimenez eta eraginkortasunez. Beste aldean, ordea, ez du ondo eramaten seme-alaba sentiberegi edo ameslariegiak izaterik. Kasu horretan, «negarrik ez egiteko», behar duten moduan portatzeko eta emozioen gainetik ibiltzeko esango die, bera bezain errealistak eta praktikoak izaten ikas dezaten.

Hortaz, Atenak ez du bere seme-alaben garapena galgatzeko, bera ondo sentitzeko, Demeterren jokamoldean ikusi genuen bezala; horren orde, bereziki azaleratzen ditu bere ezaugarriak, bizitzan zehar modu «egokian» ibiltzen irakasten eta laguntzen dienean, eraginkortasun handiz egin ere.

⁷¹ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 137. or.

⁷² BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 138. or.

Afrodita eta amatasuna

Afrodita arketipoko emakumeak, dagoeneko badakigunez, berezko bizipoza erakusten duten emakume kartsuak dira, eta grinaz eta euren modura bizi izaten dute orainaldia. Emakumeon presentziak magia, maitasuna eta sentsualtasuna pizten ditu, bere inguruko pertsonen artean, berdin ume nahiz heldu denean.

Emakume emozio-eragileok, ama direnean, beti bezain magiko eta erakargarri jarraitzen dute. Umeak oso gustura eta zorionsu egoten dira beraiekin, emakumeok umeei bereziak direla sentiarazteko trebetasuna baitute. Barruko sentimendu ahaltsu hori oso lagungarri suertatzen zaie umei euren garapenean. Horrez gain, ama horiek berez kutsatzen dute bizitzan interesatzen zaizkien gauzekiko gogoia, eta hori ere oso onuragarria da.

Batzuetan, emakumeok benetan lortzen dute «hemen eta orain» betetasunez bizitzea; zailtasun handiagoa dute, oster, umeen hazkuntzan hain jostagarri eta erakargarriak ez diren alderdietan arduraz jokatu behar dutenean. Horrelakoetan, era horretako emakumeek ez dute euren burua ezertan ere Demeter amarekin identifikatzen, ez dute ulertzen zergatik bizi behar duten beti besteentzako prest eta sakrifika-turik, gogaituta sentitu arren. Izatez, umeengan ohitura egokiak garatzeko atazan, hazkuntzaren funtsezko alderdi den horretan, egunerokotasunak eta errepikakortasunak eragiten dieten frustrazioa jasaten ikasi behar izaten dute.

Hiru adibide labur horien bitartez, Demeterren amatasunaren bizi-penarekin bat ez datozen beste batzuk agerrarazi nahi izan ditugu. Bestelako ama-bizipen horiek ere badaude gure gizartean; horra hor, hazkuntzako berdintasunaren aldeko borroka, amatasunarekin loturiko maitasunaz eta askatasunaz gozatu nahia, seme-alaben hazkuntzagatik poza, edo amaren eta seme/alabaren arteko topaketako magia eta sentsualtasuna, esaterako.

Agidanez, ez da erraza horrelako emakumeek euren burua inkontziente kolektiboan indarrean dirauen AMA HANDIAREN arketipoan islaturik ikustea, eta horrek ezgauza sentitzera edo, gutxienez, ama izateko behar den bezain onak ez direla pentsatzera eramán ditzake emakumeok. Berrito ere, gizartearen ispilu murriztaileak eragotzi egiten die ama eta emakume gisa haztea eta euren ezaugarriak osotasunean garatzea, berdintasunik gabeko gizarteetan amari egozten zaizkion portaera tradizionaleri eusteko gonbita edonondik heltzen zaielarik.

4.2. Emakumeengan dontzeilaren arketipoa pizten duten mekanismoak

Pertsefone jainkosaren arketipoa gure gizartean gehien aktibatu direnetako beste bat da, Demeterrenaren osagarri delako, hain zuzen ere. Amaren eta alabaren arteko harreman estu horren zioz, Pertsefone sus-tatzen duten mekanismoei buruz mintzatzean, bi jainkosa horien arteko harremana aktibatzen duten mekanismoen inguruan arituko gara, askotan. Txanpon beraren bi aldeak dira. Horietako bat bultzatzea, zeharka baina eraginkortasunez, bestea bultzatzea da.

Baina, familian, gizartean eta zientzian, zer mekanismo sozialek aktibatzen dute emakume izateko era hori, besteen kaltetan?

Pertsefoneren ezaugarrien aktibazioaren hariari heltzeko, familiar-teko giroa aztertuko dugu lehenbizi, batez ere bere ama Demeterrekin eta familiako gizonekin dituen harremanei erreparatuz. Jarraian, zirkulu zentrokideen kasuan bezala, inguru soziokulturalak eta sistema sozioe-konomikoak arketipo horren berezkoak diren zaurgarritasun-zantzuen aktibazioan duten pisu eskerga behatuko dugu.

Amaitzeko, gainerako faktore guztiekin bat, zientziak emakumeari buruz proiektatzen duen irudia salatuko dugu, «emakume izatea» Per-tsefoneren betiereko dontzeila-izaerarekin lotzen duelako, ezkutuan bada ere.

4.2.1. *Familiarteko dinamika. Amaren betiereko alaba*

Demeter amaren eta Pertsefone alabaren arteko lotura estu eta menpetasunezkoak ia berdin-berdin irauin dezake bizi-ziklo osoan zehar, euren «ama/alaba» rola guztiz finkatuta daudela. Denboran mantendu ahal den hierarkiazko harremana da, nahiz eta Pertsefone emakume helduak seme-alabak izan; kasu horretan, alabaina, gerta daiteke «dontzeilak» bere burua batez ere alabatzen hartzen jarraitzea, benetako ama berea delako ustean oinarriturik.

Familiarteko inguruabar horietan, Demeter amamak gehiegizko ba-besean funtsaturiko senezko ama-joera kontrolatzen ez badu, bere se-me-alaben (bereziki bere alaben) eta iloben zaintzaile nagusi bihurtu daiteke azkenean. Gehiegizko inplikazio hori gauza normala bailitzan ikus daiteke familiarteko sisteman, Demeter amak arrandiaz erakutsi ohi baititu hazkuntzarako dituen sortzetiko trebetasunak, bere alabaren zailtasunak agerian jartzen dituelarik: «*Ume hori goseak dago, ez duzu-eta esne nahikorik*»; «*ez dakizu zeure semea/alaba hezten*», «*ez dakizu zeure burua errespetaetzen...*».

Pertsefoneren ikuspuntutik, egoera hori oso zaila izan daiteke, arlo horretan berez sumatzen duen trebetasun-gabeziari amaren kritika asmo oneko bezain suntsigarriak batzen zaizkiolako. Horrek aurrez eza-ritiko betiereko alaba menpekoaren rolean behin betiko geratzera bul-tzatuko du Pertsefone.

Bestalde, ama/amamaren ikuspuntuaren arabera, argi dago egoerak gainez egitera eta bera indarrik gabe uztera —bai eta gaixotzera ere— eraman dezakeela, Antonio Guijarro aditu ospetsuak «amama es-klaboaren sindromearen» deskribapen ezagunean adierazi zuen bezala⁷³. Gure teoriaren arabera, amama horiek Demeterren muturreko eta kontrolatu gabeko arketipoari erantzungo liokete. Aditu horren uste-tan, emakume horien bizkar gainean euren adinerako ezegokiak diren eginbehar gehiegi jartzen dira, eta horren ondorioz, ahitu eta gaixotu egin daitezke, zorabioak, goibeltasuna, arnasa hartzeko zailtasuna, ne-kea, eroriko sarriak eta bestelako hainbat sintoma agertuz. Edonola ere, egile horrek berak ere badioenez, «*gerta daiteke amamak iloben haz-kuntza eta zainketa gogo onez bere gain hartzea, ama izateko aukera bigarren aldiz baletorkio bezala*»⁷⁴. Amama ez da inoiz kezkatzen, eta ar-duraz zaintzen ditu bere ilobak. Horrexek oztopatzen du, hain juxtu, be-raren nekea islatzen duten agerbide fisiko eta emozionalak hautematea eta behar bezala diagnostikatzea. Logikoaenez, Demeterren ama-bi-zipenaren zati hori ezkutatzeko estrategia —aurreko atalean aipatua— oraingo honetan ere errepikatzen da.

Madrilgo Carlos III. Unibertsitateko Soziologiako katedradun Constanza Tobio-k egindako azterlanaren arabera, ama langileen %26,7k baieztatzen dute amamak direla euren umeak zaintzen gehien lagun-tzen dieten pertsonak. Emakume horietatik %24,7k, hots, inkestari erantzun dioten gehientsuek, diotenez, amamek bikotekideek baino la-guntza handiagoa ematen diete umeen hazkuntza-zereginetan.

Datuon arabera irudikatu daitekeen harreman mota horretan, fami-liaren euskarria ama-alabak dira, nor bere rolean, bikotekidearen eginki-zuna bigarren maila batean dagoelarik. Hau da, Demeterren eta Pertse-foneren arteko harremana seme-alaben aitarekikoa baino are estuagoa da, «emakumeen kontuen» kudeaketari dagokionez.

Constanza Tobioren azterlan ezagunean jasotako baieztapen hauek argiago uzten dute harreman horien izaera: «*Aurreko belaunaldikoen laguntzak odolkidetasunean eta generoan oinarrituriko logika bikoitzari*

⁷³ GUIJARRO, Antonio (2003): *El síndrome de la abuela esclava*. Cuidar cuesta: cos-tes y beneficios del cuidado. Emakunde, Sare 2003.

⁷⁴ *Ibid.*, 2. or.

jarraitzen bide dio. Alde batetik, odoleko ahaideek gehiago laguntze horrek argi uzten du zergatik laguntzen duten gehiago amek amaginarrebek baino. Ildo beretik, bestalde, emakumeek gizonak baino gehiago laguntzen duten heinean, amek aitek baino gehiago laguntzen dute, eta amaginarrebek aitaginarrebek baino gehiago ere».⁷⁵ Bistan denez, batez ere amak dira laguntzen dutenak. Eta nori laguntzen diote? Euren alabei, alegia, umeen amei, horiexek baitira familiarteko ingurunean hazkuntzaren erantzukizuna egozten zaienak. Modu horretan, ama-alabek jasaten dute hazkuntzaren zama. Eta harremanen bilbe osoan, non geratzen dira gizonak, aitak eta semeak? Zer-nolako harremana dute emakumeek horiekin? Zer-nolako harremana dute gizonetzkoen artean?

Aztertutako datuei jarraiturik, dirudenez, gaur egun, asko dira euren gain inplikazio handiegia hartu duten eta ahidura-sintoma fisiko nabariak erakusten dituzten amamek, euren amen premia handiegia duten alaba «dontzeilek» eta, laguntza logistikoaren baldintza gabeko bermeak babesturik, emakumeekin ardurak konpartitzen ez dituzten gizonak esku hartzen duteneko familiarteko egoerak.

Elkartasun urriko familiarteko dinamika oso ohikoa da oraindik, eta «normaltzat» ere jotzen da etxe askotan, berdintasunik gabeko gizarte patriarkal honi eutsiz.

4.2.2. *Kulturaren pisua. Maitagarrien ipuinetako printzesa*

Familiarteko dinamikak ez ezik, gaurko gure kulturak ere eramaten ditu neskatoak emakumezotasuna pasibotasun eta menpetasunarekin lotzera. Neskatoei printzea etorri arte itxaroten duen Errauskine edo printzeak esnaraziko duen Edurne Zuri izateko pizgarria barnerrazten zaie. Pasibotasuna eta menpetasuna emakume askoren arazo nagusia dira, eta, inguruak arketipo hori indartzen duelarik, emakumeon nortasunaren beste alderdi batzuk garatzeke geratzen dira.⁷⁶

Iraganaldian erroturik baina, hala ere, gaur egun indarrean dagoen sozializazio-prozesuan, dontzeila ezti eta amultsuaren arketipoa, betiereko alabarena, hots, Kore edo Pertsefonerena da gailentzen den emakume-eredua. Egitate hori egiaztatzeko, hurbildu gaitezen, adibidez, gaurko gizartean oraindik «neskatoentzat» argitaratzen diren eta itxuraz kaltegabeak diren ipuinetara (Edurne Zuri, Errauskine, Loti Ederra,

⁷⁵ TOBÍO, Constanza (2008): «Redes familiares, género y política social en España y Francia», *Política y Sociedad* (45), 87-104, 96. or.

⁷⁶ BOLEN, Jean Shinoda: «Las diosas de cada mujer...», *op. cit.*, 265. or.

Ederra eta Piztia, Sirenatxoa)⁷⁷ eta neskatoek izugarri maite eta imitatu egiten dituzten protagonisten ezaugarrietara:

- Neska gazteak, zintzoak, eskuzabalak, onberak eta oso ederrak dira, eta azken alderdi hori ezinbestekoa da «printzesa izatea» lortzeko. *Errauskine dantzaldira heldu zenean, denak jiratu ziren, baita printzea bera ere!, neskari begiratzeko. Inguruko neskarik ederrena zen.*
- Bere nortasunaren alderdirik «miresgarriena» beti eder, gozo eta zoriontsu agertzea da, esplotaturik bizi eta egun osoa lanean eman arren. Ez dute depresiorik, ez daude lodi eta ez dute maskurrik atzamarretan. Inola ere ez. Ezin ederrago mantentzen dituzte zetazko adatsa, gorputz liraina, aurpegi perfektua eta esku leunak, egin behar duten lan gogor eta amaigabea eginez ere. *Errauskinek goizaldetik ilunabarrera aritzen zen janaria prestatzen, garbitzen, lisatzen eta josten. Ez zuen atsegin neskame izatea, baina alai egiten zituen bere eginbeharrak*⁷⁸.
- Esplotaturik eta/edo ikaturik bizi diren gazte horietako batek ere ez dio kontra egiten bere egoera mingarriari. Haserretu ere ez dira egiten.
- Euren edertasun fisikoari esker, printzea maitemintzea eta euren egoera tamalgarriari itzuri egitea lortzen dute. *Erik printzeak bere gaztelura eramane zuen Ariel, eta arrosa koloreko soineko eder bat oparitu zion, afalorduan jantzi zezan. Erikek sekula ez zuen hain neska ederrik ikusia, eta Ariel sekula baino zoriontsuago sentitu zen... (Sirenatxoa).*
- Dontzeiletako batek ere ez zeukan aurretiaz taxututako bizi-planik, eta euren egoeratik irteteko berariazko ekintzarik ere ez ziren gauzatzen ari. Hortaz, printzea azaltzen denean, neskatek den-dena utzi eta berarekin joaten dira beraren gaztelura. Berez, ez dute zertan hautsi bizi-egitasmo pertsonalik, egitasmorik ez dute eta.
- Ipuinetan azaltzen diren beste emakumeek ez diete protagonistei ihes egiten laguntzen. Behin ere ez da emakumeen arteko elkartasuna ageri, ez eta emakumeen arteko harremanaren indar onuragarri eta askatzailea ere. Aitzitik, emakumeen arteko harremanak bekaizkerian eta gaiztakerian daude oinarriturik. *Bazen behin Edurne Zuri izeneko printzesa bat. Bere amaorde gaiztoa,*

⁷⁷ Ipuin horiek gaur egun duten indarra ezin argiago azaltzen da Disneyren mundu magikoan.

⁷⁸ SPATHIS, Joana (2008): *Disney Princessa. Tesoro Musical POP-UP*. Louis Weber, C.E.O., Publications International, Ltd, Illinois.

Erregina, Edurne Zuriren edertasunaren beldur zen, balitekeelako etorkizunean neska amaordea bera baino ederragoa izatea. Hori dela eta, zarpailtsuen modura jantzi arazten zuen Edurne Zuri, eta neskame lan egitera behartzen zuen.

Errauskine bere amaordearekin eta bi ahizpaordeekin —gaiztoak hirurak— bizi zen. Hirurak ere, izatez, nahiko ankerrak ziren...

Emakumezko izaera guztien artetik, ipuinetako printzesa eder eta zoragarriak Pertsefoneren arketipoko emakumeen adierazpen esplizitu eta argia dira: otzanak, ederrak, pairatzaile zoriontsuak, aurretiaz taxututako planik gabekoak eta printzeak salbatutakoak.

Hemen aipatzen ari garen guztiaren alderik larriena hauxe da: neskato guzti-guztiak daude murgildurik emakumezkotasuna maitagarrien ipuinen bitartez sozializatzeko prozesu horretan. Pertsefone neskatoek, jakina, izugarri gustuko dituzte ipuinok, eta erraz identifikatzen dute euren burua beraiekin eta bertan emakumezkotasunari buruz irudikatzen diren ezaugarriekin.

Baina ezin dugu ahaztu emakumezkoaren, bakuntasunaren, pasibotasunaren, eztitasunaren eta edertasunaren arteko lotura hori ez dela bakarrik maitagarrien ipuinetan islatzen, oro har irakurtzen dugun literaturaren atal garrantzitsua ere bada eta.

«La Tribuna» egunkarian⁷⁹, Emilia Pardo Bazánek ezin hobeto deskribatu zuen Pertsefoneren arketipoko emakumeek ingurunera erraz moldatzeko duten trebetasuna, kasu honetan modari buruz ari zelarik:

Josefina entraba dócil en los moldes impuestos por la moda, sin rebelarse ni protestar jamás. Tenía su físico algo de impersonal, de una neutralidad que le permitía variar de peinado y de adorno sin mudar de tipo.

Pío Barojaren «*El árbol de la Ciencia*» liburu ospetsuan ere⁸⁰, adibidez, argi agertzen da emakumezkoaren eta Pertsefoneren deskribapenaren arteko lotura:

Lulú demostró a Hurtado que tenía gracia, picardía e ingenio de sobra; pero le faltaba el atractivo principal de una muchacha: la ingenuidad, la frescura, la candidez... Su hermana Niní, de facciones

⁷⁹ PARDO BAZÁN, Emilia (2002, jatorrizkoa 1883an): *La tribuna*. Alianza Editorial, Madril, 127. or.

⁸⁰ BAROJA, P. (1986, jatorrizkoa 1911n): *El árbol de la ciencia*. Ediciones Cátedra, S.A., Madril, 97. eta 98. or.

incorrectas, y sobre todo menos espirituales, era más mujer, tenía deseo de agradar, hipocresía, disimulo. El esfuerzo constante hecho por Niní para presentarse como ingenua y cándida le daba un carácter más femenino, más corriente también y vulgar.

Beraz, haurtzaroan bakarrik ez, gure bizitza osoan zehar baizik, emakumeok Pertsefoneren arketipoa baino ez dugu emakumezko gisa barneratzen, literaturaren, komunikabideen, publizitatearen eta abarren bitartez. Horrela, gizartearen guztiz finkaturik dagoen ikusmolde horren eraginpean, emakumeok «dontzeila» izaten ikasten dugu, besteek maite eta gizarteak onets gaitzan.

4.2.3. *Politika ekonomikoa. Familia eta lana bateratzea eragozten duen galga*

Sistema soziopolitikoak pertsonen eguneroko bizitzan duen eragina aztertzea ezinbesteko giltzetakoa da, gizarte bakoitzean zer arketipo sustatzen diren eta zeintzuk oztopatzen diren ulertu nahi badugu. Politikak eta ekonomiak neurri handian ebazten dituzte une historiko bakoitzean aktibatzen diren emakume-arketipoak.

Hona hemen nire galdera: zer motatako jainkosak (minberak, birjina ala alkimikoa) aktibatzen dira gaur egungo gure gizarteetan? Ematen zaie aukera emakumeei lana eta umeen hazkuntza normaltasunez eta gizonetikiko berdintasunez bateratzeko, ala gehiegizko esfortzua eta zaugarritasuna dira iraganaldiko eskemetan ainguratutako gobernuen laguntza-erak eskaintzen dien irtenbide bakarra?

Hausnarketa hori dagokion testuinguru historikoan kokatzearen, gogoratu dezagun, frankismoaren garaietan, etxearekin loturiko guztia emakumeen kargu zegoela, horixe zelako emakumeek egin behar zutena, erregimenak eta erlijioak beraientzat xedatutakoa, alegia: ezkondu (ezkontzaren Hera jainkosaren aktibazioa), seme-alabak izan eta zaindu (Demeterren arketipoa aktibatuz), ezkontzaren eta amatasunaren mistika guztiz iruzurti baten baitan.

Franco hil zenean, 1975ean, berrogei urtez Espainiako emakumeen bizimodua erabat baldintzatua zuen erregimen politiko patriarkal hura eraisten hasi zen, pixkana-pixkanaka⁸¹. Egoera aldatuz doa, oso motel

⁸¹ «Gure inguruko herrialde europarretan XIX. mendean sortu zen patriarkatu-eredu hori hainbat hamarkada lehenago desagertua zen bai Europan, bai munduko beste herrialde askotan. Horretan eta beste gauza anitzetan ere, Espainia herrialde anakronikoa zen ordurako.»

aldatzen bada ere; emakume-rolak aniztu egin dira, eta hainbestearaino aktibaturiko Demeter amen alabak ez dira dagoeneko euren amekin bizi. «*Laurogeiko hamarkadatik aurrera, emakume gehienak lan-merkatuan sartzea eta lan-bizitza osoan bertan irautea eragiten duen gidalero modernoagoa ezarri zen. Horren ondorioz, gaurko amak lan-merkatuan sartutako lehenengo emakume-belaunaldietakoak dira, eta berorien amak, aldiz, etxeko munduan, hau da, emakumeen ohiko zereginetan bakarrik jardun zuten emakumeen azken belaunaldikoak.*»⁸²

Baina, zoritxarrez, alaben belaunaldiek izan duten rol-aldaketa hori ama izan eta gero ere ahalbidetzeko behar diren aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak ez dira aldi berean gauzatu. Gaurko emakume askok, ama direnetik, kanpotik jasotzen duten laguntza eskasak birpiztu egiten ditu, ia oharkabean, Pertsefoneren menpekotasuna eta minberatasuna. Horrek, halaber, bere alabak eta, hedaduraz, bere ilobak zaintzera bultzatuko ditu Demeterren arketipoan hezitako amamak, Antonio Guijarrok azaldutako amama esklabo bihurtu araziz.

Umeez zaintzaren beharra duten aldi osoan amei kanpotik etorri beharko litzaiekeen laguntzarik ez izatea funtsezko inflexio-gakoa da, emakumeen arketipoen garapenean. Emakumeek nozitzen duten laguntza-gabeziaren aurrean, Pertsefone emakume ugarik berretsi eta betikotu egiten dute euren arketipoa, euren seme-alabak hazteko ardua euren amengan bermatuz, eta bestelako arketipoak garatu dituzten emakume askori ere aktibatzen zaizkie Pertsefone jainkosa eta horren berezitasunak, eginkizun horri aurre egin behar diotenean, gure herrialdeko gizarte-atzerapenaren zioz. Izan ere, berdintasunaren inguruko diskurtso politikoki zuzena gorabehera, umeen hazkuntza-zereginak bereziki emakumeen lanean baitaude bermatuta.

Erkatu ditzagun, esaterako, Espainiako eta Frantziako egoerak. Frantzian, Espainian ez bezala, umeen zaintza honako hiru baliabide nagusi hauetan oinarritzen da: haur-eskolak, haurzaindegiak, etxeko zaintzaileak eta etxeko langileak; estatuak hiruetarako ematen du laguntza bat edo beste.

Frantziako aitite-amamek (batez ere amamek) ere laguntzen dute umeen hazkuntzan, baina laguntza hori Estatuaren baliabide oparoen osagarri da. Espainian, ordea, amama-aitteen laguntza horrek *ordeztu egiten ditu* gizarte-politika eskasak. Berez, «*euren ilobak zaintzen dituz-*

TOBÍO, Constanza (2008): «Redes familiares, género y política social en España y Francia», *Política y Sociedad* (45), 87-104, 90. or.

⁸² TOBÍO, Constanza (2003): «Cambio social y solidaridad entre generaciones de mujeres», *Feminismo/s* (2), 153-166, 153. or.

ten aitite-amamak familiek eskura dituzten baliabiderik garrantzitsuenetako bat dira, une hauetan, lan-merkatuan emakumeen parte-hartzea azkar handitu deneko herrialdeetan»⁸³, umeak zaintzeko zerbitzu formalak, Espainiako estatuan bezala, behar bezala garatu ez badira, batez ere. Politikak emakumea abandonatzen duen eta amatasunaren alde jotzen ez duen bakoitzean, emakumea zaurgarritasun-egoeran uzten duenean, indar bereziz aktibatzen ditu Demeterren eta Pertsefoneren arketipoak, eta, horiekin batera, emakumeen menpekotasuna ere.

Horrez gain, dirudienez, egoera ez da aldatzen ari emakumeek, Pertsefone minbera gainditzeko eta zaintzaren etika askatasunez eta autonomiaz praktikatzeko, beharko luketen bizkortasunaz. Gaur, emakumeek presio handia jasaten dute, baina laguntza gutxi jasotzen dute instituzioetatik. Horrek emakumeen arazo bihurtzen du berdintasunean oinarrituriko bestelako inguruabarretan gizarte osoaren ardura izan beharko lukeen eginbearra, eta, horrela, erabateko zaurgarritasunean jartzen du emakumea.

Pentsa dezagun, adibidez, pediatren aholkuen arabera, ume jaioberriek amaren esnea gutxienez sei hilabetez (27 bat astez) hartzea komeni dela; baina amatasun-baja, berriz, ozta-ozta gainditzen du hiru hilakoa (16 aste).

Pentsa dezagun, adibidez, gure herrialdean hiru urtetik beherako umeentzako arretan nozitzen ditugun gabezietan, ume guztientzako beste toki ere ez baitago haurtzaindegietan.

Pentsa dezagun, adibidez, aitei ematen zaizkien 15 eguneko bajetan, zeren, duela urte gutxira arteko errealitatearen aldean lorpen handia badira ere, ez baitute kontuan hartzen gizonak bere umeen hazkuntzan izan behar duen inplikazioa. Espainiako Gobernuak, gainera, aiten baja luzatu beharrean, atzeratu egin du baja hori hilabetekoa izan dadin xedatzeko erabakia, krisia dela eta. Hau da, krisia gainditze aldera, emakumeen zaurgarritasuna eta laguntza-gabezia aktibatzen ditu, umeen bizitzako lehenengo aldietan. Horren harira, honako beste galdera hau datorkit niri burura: umeak zaintzen laguntzeko inbertsioa da krisi ekonomikoko egoeretan sakrifikatu behar dena? Edo, bestela esateko, emakumeen zaurgarritasuna eta gehiegizko ardura-zama dira sus-tatu behar diren alderdiak, ustez demokratikoa den gizarte honetan?

Zenbaitetan, gobernu baten eta bestearen kanpainai azaletik begiratzean, egoera aldatzen ari dela ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, Eusko Jaurlaritzak oihartzun handiz plazaratu du lana

⁸³ TOBÍO, Constanza (2008): «Redes familiares, género y política social en España y Francia», *Política y Sociedad* (45), 87-104, 92. or.

eta familia bateratzeko bere azken kanpaina, eta argi utzi du «*gobernu honek egin duen ahalegin ekonomiko handia, laguntza guztien zenbatekoa handitu duelako*»⁸⁴. Baina aztertu ditzagun xehetasunez neurriok:

- *Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko laguntzak handitu dira.* Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duenarentzako laguntza 3.500 eurokoa da urtean, eta lanaldi-murrizketa hautatzen duenarentzako, 2.800 eurokoa da, murrizketa %45ekoa bada; 2.500 eurokoa, %40ko murrizketaz, eta 2.200 eurokoa, %33ko lanaldi-murrizketa erabakiz gero. Esaten ari garena, funtsean, hauxe da: emakumeek urtean 2.200 eta 3.500 euro inguru jasotzearen truke murriztu behar dituztela euren lanaldiak, edo kanpoan lan egiteari utzi. Eta emakumeak diogu, bai, ezin dugulako bazterrean utzi neurriok ezeztatu egiten dutela aurreko legeriak gizonen alde xedatzen zuen diskriminazio positiboak, emakumezkoei baino laguntza-zenbateko handiagoak onesten zizkiena. Izan ere, neurri horietara atxikitzen diren gizonen portzentajeak ia bere horretan iraun baitu: gizonek ez dute ez lanaldi-murrizketarik, ez eszedentziarik eskatzen. Gaur egun, oraindik ere, hazkuntzaz, lana uzteaz, soldata murrizteaz, umeen zaintzaz arduratzeaz, eta abarrez hitz egitean, emakumeei buruz ari gara dirudi, ikusmolde tradizionalari eutsirik.
- *Etxeko laguntza kontratatzea bultzatzen da.* Adingabeko seme-alabak zaintzeko langile bat kontratatzeko laguntza familiari gizarte-segurantzian kotizatu behar den zenbatekoaren %100 ordaintzean datza, familiaren errenta estandarra 28.000 eurotik beherakoa bada, eta kotizazioaren %75 ordaintzean, familiaren errenta estandarra 28.000 eurotik gorakoa izatera. Hausnarketa soila eginez, zalantzan jarri behar dugu 28.000 euro baino gutxiagoko errenta estandarra duten familiek, praktikan, etxerako laguntza kontratatzeko duten aukera.

Laburbilduz, familia eta lana bateratzeko laguntza urriegiek zaurgarritasun eta menpekotasunezko egoeran uzten dute, beti bezala, emakumea; alegia, jainkosa minberen ezaugarri guztiak pizten dituzte. Pertsefoneren arketipoa sustatzen da, baliabiderik ezak menpekotasuna, babesgabetasuna eta menpekotasuna pizten dituelako, baina, aldi berean, Demeterrena ere aktibatzen da, bere alaba betiereko ne-

⁸⁴ EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA, EHAA - 2010eko uztailaren 8, ostegunekoak.

rabea bailitzan zaintzeko bere sen ahaltzuaz beraien arteko menpe-tasun-harremanak indartu egiten direlarik. Baina, horrez guztiaz gain, laguntza-gabeziak hain tradizional ez diren beste arketipo batzuekin identifikatzen diren emakumeengan ere pizten ditu, tamalez, minbera-tasunezko ezaugarriak.

Norabide horretan jotzeko benetako aldaketarik ez dagoen bitar-tean, gizarte-egiturek egoera berriak aintzat ez hartzeko jarrera irmoan geldirik jarraitzen badute, emakumeen gehiegizko esfortzuaz betiko-tuko ditugu hazkuntzako rol tradizionalak. Izaskun de la Fuentek dioen legez, «*Estatuak edo instituzio publikoek euren gain hartzen ez dutena emakumeek betetzen dute*»⁸⁵. Politikaren eta ekonomiaren bidez, jain-kosa minberak sustatzen jarraitzen dugu, gizon eta emakume izateko era berriak, elkartasunean eta arduren banaketan oinarrituak, azalera-tzeko aukerarik utzi gabe, bidean larrua galduz ez bada. Gaur egungo proposamen politikoetan ez dago ez elkartasunik, ez berdintasunik.

4.2.4. *Psikologia zientzia. Pertsefoneren berezitasunak eta emakumezkotasuna lotzeko joera*

Pertsefoneren ezaugarriak islatzen eta aktibatzen dituztenak ez dira bakarrik familiarreko dinamikak, maitagarrien ipuinak eta gaurko munduko egitura soziopolitikoak. Zientziak ere, bere neutraltasunaren atzean gordeirik, estereotipo berberak finkatzen ditu, bere ikerketa so-fistikatuak medio.

Emakumeen psikologiari buruzko ikerlan askok egiaztatzen omen dute emakumeek euren ondoan dauden gizonek baino gehiago behar dutela besteen onspena, pentsamendu negatiboak izateko joera handiagoa dutela eta depresio- eta estutasun-indize altuagoak nozitzen dituztela⁸⁶. Emaitza horien arriskua bikoitza da: alde batetik, emakumeak «berez» horrelakoxeak direla onartzera eraman deza-kete, eta beste aldetik, saihestu egiten dute emakumeengan Pertse-foneren ezaugarriak aktibatzearekin eta emakume horietako askori pertsona legez guztiz garatzeko aukera galaraztearekin ekonomiak,

⁸⁵ SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun (2007): «Ni Bridget Jones ni Kate Reddy ni “mujeres desesperadas”», in DE MIGUEL, Pilar (arg.). *¿En qué creen las mujeres? Creyendo y creando*, Desclée De Brouwer, Bilbo, 102. or.

⁸⁶ CARDEÑOSO, Olga (2007): «De la Psicología cognitiva a la literatura: nuevos horizontes en el análisis de las creencias y autodiálogo de las mujeres», in DE MIGUEL, P. (arg.), *¿En qué creen las mujeres? Creyendo y creando*. Bilbo, Desclée de Brouwer, 37., 42. eta 43. or.

politikak eta sozializazioak duten zerikusiaren gainean zuzenean eztabaidatzeko aukera.

Pertsefoneren berezitasunak emakumezkotasunaren funtsarekin nahasi eta emakume guztien berezitasun bailiran tratatzean, zientziak gizarte-ispilu zehatz bat eraikitzen du. Emakumeak, hain zuzen, ispilu horri begiratzen dio bertan ikusten duen irudia maitagarrien ipuinetako printzesen irudiarekin bat datorren, ala ez, egiaztatzeko. Sarritan, zorionez, emakumeek ez dute euren burua identifikatzen ispiluak islatzen duen ipuinetako printzesaren irudiarekin, eta horrek, paradoxaz, gatazka eragin dezake zenbait emakumerengan, benetako emakumeak ez direla edo gizarteak, familiak, gizonak eta abarrek beraiengandik espero dutenarekin bat ez datozela sentitzen dute eta.

Egia da pasibotasuna eta menpetasuna emakume askoren funtsezko arazoak direla, baina ez emakume guztienak. Arazook jainkosa minberen berezkoak dira, baina ez jainkosa birjinen berezkoak. Gogoratu dezagun, esaterako, Atenaren balizko arazoetako bat hoztasun emozionala dela, eta Artemisari, ehiztariari, minik eta amorrurik handiena eragiten dizkioten egitateak munduko berdintasun eta zuzentasun eskasak direla. Bestalde, Herak ere baditu arazoak amorruekin, eta Afrodita, bere aldetik, laketean arduragabekeriak murgiltzearekin.

Ez, emakume guztiak ez dira berdinak, ustezko emakumezkotasunaren ispiluan islatzen direnean hala dela dirudien arren. Arketipoen aniztasunak ezaugarri onbera ugari erakusten dizkigu, bai eta alde ahulak ere, zientziak «emakumezkoa» Pertsefonerekin lotu nahiago badu ere.

Zalantza barik, emakumeari buruzko ikusmoldea zabaldu egin behar dugu, begiratzeko darabilgun paradigma edo irudi teorikoa berriaz osatzeko. Begiratu diezaiegun bai printzesa gozo, eder eta pasiboai, bai abenturazale, adoretzu, ahaltsu, eme eta ausartei. Horrek aukera emango die hain estereotipaturik ez dauden beste arketipoetako emakumei osoan garatzeko, eta arketipo tradizionalei eboluzionatzen lagundu ahal dieten beste emakume-izaera batzuk proiektatuko ditu. Horixe da modu bakarra psikologiaren bidez emakume guztiak ulertzeko eta guztiei laguntzeko, emakumeon gatazkak edo patologiak zientzian aurretiaz ezarritakoetatik urrun badaude ere.

Askatasun, berdintasun eta elkartasuneranzko bide berriak

Saiakera honetan hainbat aldiz errepikatu dugu gizarteak, zientziaren laguntzaz, irudi murrizta islatzen duela emakumeari buruz, historian zehar jarauntsitako usteek eta estereotipoek baldintzaturik. Ez dugu benetako emakumea hautematen, tradizioz emakumezkotzat hartu izan denaren itzal bat baizik.

Funtsezko elementuekiko kontzientzia-gabezi honek gatibu egiten ditu gizonak eta emakumeak, berdintasuneranzko eta askatasuneranzko bidea oztopatzen dielarik. Arrisku hori abileziaz ezkututzen da, gizartearen berezko balio eta pentsaera «naturalak» barneratzean; azpikeriaz sartzen da bai emakumezko zein gizonezko «gatibuen», bai emakumezko zein gizonezko «jagoleen» garunetan, eta iraurarazi egiten ditu desoreka-egoerak.

Liburu honetan luze argudiatu dugunaren ildotik, gizartea, ekonomia, ipuinak eta zientzia bera, sarriegi, tradizioaren jagole leialak izaten dira; bertako biztanleen begirada eta kontzientzia lausotu egiten dituzte, eta gizaki guztiok merezi dugun berdintasunerako eskubidea —giza eskubideen aldarrikapenaren lehenengo artikuluak gogorarazten diguna— murriztu egiten dute.

Gauzak horrela, gizartearen pentsaera «naturalarekin» bat ez datozen pentsamenduak, jarrerak eta iritziak ikusezin egiten dira, inoiz izan ez bailiran, edo txarto interpretatzen dira, bestela, fenomeno txar, kaltegarri eta «ez-naturala» balira legez.

Ezin dugu ahaztu «*giza kontzientziak onartzen duenak baino ez duela existitzen*»⁸⁷. Jainkosa birjinen berezkoak diren emakume-ezauga-

⁸⁷ ORWELL, G. (2006, original en 1949): 1984. Ediciones Destino, S.A., Bartzelona, 324. or.

rrietako batzuk (argitasuna, irmotasuna, arreta, burujabetasuna, berdintasunaren aldeko borroka, eta abar) negatibotzat jotzea edo itzalpean edukitzea, eta, aldi berean, jainkosa minberei dagozkien eta tradizioari estu loturik dauden berezitasunak (hala nola menpetasuna, berdintasun-eza eta neurritz kanpoko autosakrifizioa) norabide bakarrean argitzea kateetatik askatzeko eta kobazulotik irteteko bidea benaz oztopatzen duten jardunbideak dira. Horixe salatzen du, nagusiki, liburu honek.

Dena den, arrakalak eta hausturak daude: gu baino lehen bizi izan ziren emakume askoren borroka⁸⁸, teoria berriak (Jean Shinoda Bolenena kasu), literaturan eta artean azaldu diren adierazpen berriak⁸⁹, ipuin alternatiboak⁹⁰, hezkidetzaren bultzada⁹¹, egunero bizitzan jazotzen diren ekintza txiki baina erabakigarriak; euren rol naturalizatuaren atzean ezkutatu beharrean, umeak hazteko eta etxeko zereginak egiteko trebetasuna erakusten duten gizonak; beste paradigma bat itxuratzen saiatzen ari diren emakumezko zein gizonezko ikertzaileak; ondorioak pairatzeko arriskuari amore eman gabe, berdintasunaren aldeko jarrera hartzen duten emakume adoretu asko... Horiek guztiak iluna argitzen saiatzen ari den ekinbidearen adierazpenetakoak dira. Horietako batzuek herabetasunez argitzen dute; beste hainbatek, aldizka baino ez, eta beste zenbait, gutxienez, argi bizia ematen dute. Baina denak dira ezinbestekoak gizarte-eraldaketa lortzeko eginkizun zailean, eta denak ere hartu behar dira hartakotzat.

Edonola ere, hona iritsita, ezin dugu ahaztu gaur egun, kasurik onean, arrisku berri bat dugula zain, aldaketaranzko eta berdintasuneranzko bide honetan: arrisku-salto hirukoitza. Gaur, apurka-apurka, emakumeari onartu egiten zaio antolakuntzarako, berdintasunaren eta zuzentasunaren aldeko borrokarako bere trebetasunak, bere irmotasun eta argitasuna garatu ahal izatea. Baina, oro har, ez da hain argi ikusten, xxi. mendeko gure kobazuloan espero litekeenaren arabera, jainkosa birjinen ezaugarri horiek erakusten dituen emakumeak, ALDI

⁸⁸ Olympe de Gouges (1748-1793); Mary Wollstonecraft (1759-1797); María de Maeztu (1881-1948); Virginia Woolf (1882-1941); Clara Campoamor (1888-1972); Dolores Ibárruri (1895-1989); Betty Friedan (1921-2006), Gloria Steinem (1934-).

⁸⁹ BELLÍ, Gioconda (2003): *La mujer habitada*. Ediciones Salamandra, Bartzelona.

⁹⁰ CANETTI, Yanitzia (2009): *La fea durmiente*. Everést, León.

CANETTI, Yanitzia (2009): *El ceniciento*. Everést, León.

CANETTI, Yanitzia (2009): *Blanca Nieve y los siete gigantes*. Everést, León.

CANETTI, Yanitzia (2009): *Aladino y la lámpara espantosa*. Everést, León.

⁹¹ <http://zubiakeraikitzen.blogspot.com>

BEREAN, jainkosa minberen ezaugarri tradizionalak ere agertu behar dituela; hots: borrokalaria eta indartsua izan daiteke, eta kanpoko helburuak izan; baina ezti, amultsu, autosakrifikatu eta adeitsu ere izan behar du.

Paradoxazko egoera horrek oinaze eta erru-sentimendu handiak sortzen ditu emakumeengan, guztiz kontraesankorrek diren rolak —burujabe, aske, buruargi, beti adeitsu, samur, eder, pasibo, menpeko...— betetzen saiatzen direlako. Alegia: lan-merkatuan sartu, espazio publikoan beretzako toki bat egin eta, halaber, umeen hazkuntzan eta etxeko zereginetan gizonak baino askoz ardura gehiago hartzen jarraitu.

Gizarte talde batzuen barruan, ordea, inor ez ei da jabetzen ezaugarri eta rol horietako asko bateraezinak direla, edo nekez bateratu ahal direla, eta bateratzerik ere ez dela komeni.

Gaurko emakumea ezin da aldi berean pertsona heldu osasuntsua eta emakume ideiala izan. Ezin da bi pertsona batera izan: emakumezko mundu tradizionalari loturikoa (menpekoa, mugarik gabeko autosakrifizioaren zalea, otzana, beti gozo...), alde batetik, eta aldaketarekin loturikoa, bestetik (heldua, mugak jartzen dakiena, bere sentimenduak —baita amorrua ere— erakusten dituen...). Horrelakoa izaten saiatzea bi buru izatea eta bata alde batera eta bestea beste aldera begira edukitzea bezalakoxea da. Hori ez da ez praktikoa, ez osasungarria, bizitzan ibiltzeko.

Emakumeari, bateraezinak diren rolak aldi berean betetzeko egiten zaion presioa arazo larria da gure garai honetan. Dударik gabe, emakume gisa haztea eta jainkosa bakoitzaren berezitasunik onuragarrienez baliatzea (jainkosa guztiek baitituzte) interesgarria eta aberasgarria da, baina bateratasunez, *zentzuz eta orekaz* jokatzuz eta norberaren bilakaeraren eta heldutasuneranzko prozesuaren emaitza gisa, berriro beste estereotipo bat betearaziko digun eskubide-lorpen aizun baten ondorioz barik. Oraingoa aldaketa eta kontraesan handiz beteriko une latz bat da, eta argitasunez ebatzi behar ditugu kontraesanak banan-banan, askatasunerantz jotzeko, berriro kateatu beharrean. Hortxe dago koska.

Hortaz, adimenez heldu behar diogu une honi. Emakumezkoatasunarekin loturiko irudi eta ezaugarri ezberdinak arrazoizko eran eta posible den heinean integratzea da xedea: zilegi da beste pertsonak maite izatea eta, aldi berean, norberaren patuaren jabe sentitzea; bidezkoa da aldaketa-garaietan harkorra izatea eta, aldi berean, bizitzan hartu beharreko erabakietan errealismoz jokatzeko; zilegi da bai eztitasuna, bai haserre sentitzea...; baina, berriro esango dut: arrazoizko eran, eta hazten lagundu gaitzan.

Horretarako, baliatu ditzagun hauek guztiak:

- Afroditarren eraldaketa-ahalmen indartsu, sakon eta magikoa;
- Pertsefonek bizitzan azaltzen zaizkion helmuga eta bide berrie-
kiko agertzen dituen harmena eta irekitasuna;
- Demeterren eskaintza eta maite-ahalmena;
- Hestiaren harmonia, enpatia eta lasaitasuna;
- Heraren bizitasun emozionala;
- Atenaren trebetasun praktiko eta estrategikoak, eta
- Artemisaren indar basatia, uste sendoa, burujabetasuna, irmota-
suna, borrokatzeko gaitasuna, berdintasun eta zuzentasunare-
kiko atxikimendua, eta abar.

Eta egin dezakegun aldaketa hori nork bere bizitzan ere bai, itzalpean zegoena argitzeko, emakumeok geure baitan dugun aberastasun itzelaz baliatzeko, eta osasuntsu, indartsu eta osoan hazteko behar ditzakegun arketipoak aktibatzeke, eta geure atal diren baina gure identitatearen esparru horretako iluntasunaren zioz ikusi ezin genituen alderdiak onesteko. Ez dezagun ahaztu gure ahalmenen gaineko kontzientzia-hartze hori, banako emakume gisa hazteko baliagarria eta osasungarria izateaz gain, estrategia politikoa⁹² eta soziala ere badela, emakume guztien eta pertsona guztien giza eskubideen benetako aintzatespenerako bidean. Liburuaren hasierako esaldia berriz interpretatu nahian:

*Eraiki dezagun adorea, sormena, leialtasuna, norberaren burua-
renganako konfiantza, malgutasuna, nekaezintasuna, senezko argi-
tasuna, autonomia, maite-suaren grina, maitasuna, eskuzabaltasuna,
harmena, erabakitzeko gaitasuna eta abar jatorrizko giza ezaugarri-
ztat (emakumezko eta gizonezkoztat) aurkeztuko dituen mundua, eta
borrokatu dezagun beraren alde».*

Emakumezko eta gizonezko arketipo berri bat sortzen ari da. Utz diezaiozun hazten. Denon zeregina da.

⁹² ALCOFF, Linda (1988): «Feminismo cultural versus post-estructuralismo», *Journal of Women in Culture and Society*, 13. lbki., 3. zk. Chikagoko Unibertsitatea. M. Rosario Martín Ruanok Debats Aldizkarirako egindako itzulpena.

Bibliografia

- AGHA-JAFFAR, Tamara (2002): *Demeter and Persefone. Lessons from a myth*. McFarland and Company, North Caroline.
- ALCOFF, Linda (1988): «Feminismo cultural versus post-estructuralismo», *Journal of Women in Culture and Society*, 13. libk., 3. zk. Chikagoko Unibertsitatea. M. Rosario Martín Ruanok Debats aldizkarirako itzulia.
- ARBAT, Agnès eta DANÉS, Imma (2003): «Depresión postparto». *Med Clin (Barc)*, 121(17), 673.-675. or.
- BAROJA, Pío (1986, jatorrizkoa 1911n): *El árbol de la ciencia*. Ediciones Cátedra, S.A., Madril.
- BELLI, Gioconda (2004, 4. argitaraldia): *Apogeo*. Visor libros, Madril.
- BELLI, Gioconda (2003): *La mujer habitada*. Ediciones Salamandra, Bartzelona.
- BOLEN, Jean Shinoda (2006, 12. argitaraldia): *Las diosas de cada mujer. Una nueva psicología femenina*. Kairós, Bartzelona.
- BOLEN, Jean Shinoda (2006): *Las diosas de la mujer madura. Arquetipos femeninos a partir de los cincuenta*. Kairós, Bartzelona.
- BOLEN, Jean Shinoda (2004): *Los dioses de cada hombre. Una nueva psicología masculina*. Kairós, Bartzelona.
- BOLEN, Jean Shinoda (1998): *Viaje a Avalon. La peregrinación de una mujer en la mitad de la vida*. Ediciones Obelisco, Argentina.
- BOU, Nuria (2006): *Dioses y tumbas. Mitos femeninos en el cine de Hollywood*. Icaria, Bartzelona.
- BURÓN, Javier (1995, 2. argitaraldia): *Motivación y aprendizaje*. Mensajero, Bilbo.
- CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (2005): «Gender differences in cognitive vulnerability to depression and behavior problems in adolescents», *Journal of Abnormal Child Psychology*, 33(2), 179.-192. or.
- CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (2002): «Self-talk in adolescents: Dimensions, States of Mind, and Psychological Maladjustment», *Cognitive Therapy and Research*, 26(4), 473.-485. or.
- CALVETE, Esther y CARDEÑOSO, Olga (2001): «Creencias, resolución de problemas sociales y correlatos psicológicos», *Psicothema*, 13(1), 95.-100. or.
- CALVETE, Esther eta CARDEÑOSO, Olga (1999): «Creencias y síntomas depresivos: preliminares en el desarrollo de una Escala de Creencias Irracionales Abreviada», *Anales de Psicología*, 15(2), 79.-190. or.

- CANETTI, Yanitzia (2009): *La fea durmiente*. Everést, León.
- CANETTI, Yanitzia (2009): *El ceniciento*. Everést, León.
- CANETTI, Yanitzia (2009): *Blanca Nieve y los siete gigantes*. Everést, León.
- CANETTI, Yanitzia (2009): *Aladino y la lámpara espantosa*. Everést, León.
- CARDEÑOSO, Olga eta CALVETE, Esther (2004): «Desarrollo de un Inventario de Creencias Irracionales para adolescentes», *Psicología Conductual*, 12(2), 289.-304. or.
- CARDEÑOSO, Olga (2010): «Artemisa y Atenea. Diosas griegas y mujeres contemporáneas», in MARCOS DE COSSÍO, Pedro (arg.): *Mitos femeninos. Laberinto de espejos*. Arcybel, Sevilla.
- CARDEÑOSO, Olga (2007): «De la psicología cognitiva a la literatura: nuevos horizontes en el análisis de las creencias y el autodiálogo de las mujeres», en DE MIGUEL, Pilar (arg.). *¿En qué creen las mujeres? Creyendo y creando*. Desclée De Brouwer, Bilbo.
- CARDEÑOSO, Olga (2006): *Adolescentes víctimas de maltrato. Programa de intervención en autocontrol emocional*. Mensajero, Bilbo.
- CLARK, Lynn (1998): *SOS Help for Emotions: Managing Anxiety, Anger, and Depression*. Parents Press, Kentucky.
- COHEN, Albert (2007, original 1954): *Le libre de ma mere*. Folio, Bartzelona, 21. or.
- COX, M.J. eta beste batzuk (1992): «Prediction of infant-mother and infant-father attachment», *Developmental Psychology*, 28, 474.-483. or.
- DE BEAUVOIR, Simone (1949): *El segundo sexo. Los hechos y los mitos*. Siglo Veinte, Buenos Aires.
- DOWNING, Christiane (1999): *La diosa. Imágenes mitológicas de lo femenino*. Editorial Cairós, Bartzelona.
- ELLIS, Albert (1980, jatorrizkoa 1962an): *Razón y emoción en psicoterapia*. Desclée de Brouwer, Bilbo.
- ELLIS, Albert eta HARPER, Robert A. (1962): *Psicoterapia racional emotiva*. Herrero Hermanos Sucesores, Mexiko.
- ESTÉS, Clarissa Pinkola (2009): *Mujeres que corren con los lobos*. Zeta, Bartzelona.
- EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA, EHAA - 2010eko uztailaren 8 osteguneko.
- FERNÁNDEZ, Eduardo; JUSTICIA, Fernando eta PICHARDO, María del Carmen (2007): *Enciclopedia de Psicología Evolutiva y de la Educación. Tomo I*. Málaga: Ediciones Aljibe.
- FRODI, A.M.; LAMB, L.; LEAVITT, L.A.; DONOVAN, C.; NEFF, C. eta SHERRY, D. (1978): «Fathers' and mothers' responses to the faces and cries of normal and premature infants», *Developmental Psychology*, 14, 490.-498. or.
- GOLOMBOK, Susan (2006): *Modelos de familia. ¿Qué es lo que de verdad cuenta?* Graó, Bartzelona.
- GUIJARRO, Antonio (2003): *El síndrome de la abuela esclava*. Cuidar cuesta: costes y beneficios del cuidado. Emakunde, Sare 2003.
- IMAZ, Elixabete (2006): «¿Y vosotros para cuándo? El deseo, la decisión y el momento adecuado para la paternidad en las parejas vascas contemporáneas», *Vasconia*, 35. libk., 333.-343. or.

- LAKSHMI, C.S. (2008): «Una cocina en un rincón de la casa»; in BUTALIA, Urvasi (arg.): *Mujeres en la India. Antología de nuevas escritoras indias*. Boonet, Bartzelona.
- LIZASO, Izarne eta APODAKA, Marije (2008): *Giza Garapenaren ereduak I. Udako Euskal Unibertsitatea, Donostia*.
- LÓPEZ, Félix y ORTIZ, María José (2000): «El desarrollo del apego durante la infancia»; in LÓPEZ, F.; ETXEBARRIA, I.; FUENTES, M.J. eta ORTIZ, M.J.: *Desarrollo afectivo y social*. Pirámide, Madril.
- NORTHRUP, Christiane (1999): *Cuerpo de mujer, sabiduría de mujer. Una guía para la salud física y emocional*. Ediciones Urano, Bartzelona.
- ORWELL, G. (2006, jatorrizkoa 1949an): *1984*. Ediciones Destino, S.A., Bartzelona.
- PARDO BAZÁN, Emilia (2002, jatorrizkoa 1883an): *La Tribuna*. Alianza Editorial, Madril.
- PARKE, Ross D. (1998): *El papel del padre*. Ediciones Morata, Madril.
- PARKE, R.D. eta SAWIN, D.B. (1980): «The family in early infancy: social interactional and attitudinal analyses», in PEDERSEN, F. (arg.): *The father-infant relationship: observacional studies in a family context*, Praeger, New York.
- RUSSEL, Graeme eta RUSSEL, Allan (1987): «Mother-child and father-child relationships in middle childhood», *Child Development*, 58, 1573.-1585. or.
- SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun (2007) «Ni Bridget Jones ni Kate Reddy ni "mujeres desesperadas"»; in DE MIGUEL, Pilar (arg.): *¿En qué creen las mujeres? Creyendo y creando*. Desclée De Brouwer, Bilbo.
- SAND, George (1995): *Un invierno en Mallorca*. Omni S.L, Palma de Mallorca.
- SPATHIS, Joana (2008): *Disney Princesa. Tesoro Musical POP-UP*. Louis Weber, C.E.O., Publications International, Ltd, Illinois.
- TOBÍO, Constanza (2008): «Redes familiares, género y política social en España y Francia», *Política y Sociedad* (45), 87-104, 96. or.
- TOBÍO, Constanza (2003): «Cambio social y solidaridad entre generaciones de mujeres», *Feminismos* (2), 153-166, 153. or.
- VALLS, Carme (2006): *Mujeres invisibles*. Random House Mondadori, S.A., Bartzelona.
- VILLALOBOS, Magali (2004): *A puntadas. Cuadernos de mitología griega y psicología arquetipal*. Alfa Grupo Editorial, Venezuela.
- WOOLF, Virginia (2003, jatorrizkoa 1929an): *Un cuarto propio*. Alianza Editorial, Madril.
- YOUNG, Jeffrey E. eta KLOSKO, Janet S. (2001, jatorrizkoa 1993an): *Reinventar tu vida. Cómo superar las actitudes negativas y sentirse bien de nuevo*. Paidós, Bartzelona.
- YUSTE, Nazario, GÁZQUEZ, José Jesús eta PÉREZ, María del Carmen (2007): *Psicología del desarrollo en la escuela. Tomo 1*. Grupo Editorial Universitario, Almería.
- ZWEIG, Connie eta WOLF, Steve (2008, 3. argitaraldia): *Vivir con la sombra. Iluminando el lado oscuro del alma*. Kairós, Bartzelona.
- ZWEIG, Connie (2007): «Lo femenino consciente: nacimiento de un nuevo arquetipo»; in DOWNING, Christine (arg.): *Espejos del yo*, Kairós, Bartzelona.

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 63. zenb.

Teoria psikologiko gehienek, itxurazko neutraltasuna gorabehera, emakumezkotasuna aztertzean oraindik darabilten ikusmoldea «emakume izateari buruz uste denaren» gaineko estereotipo tradizionalak baldintzatuz dago oso. Emakumeen mundua behatzean, oso teoria gutxi sartzen dituzte, emakumeen berezkozat harturik, tradizioz gizonaekin lotu diren hainbat ezaugarri, hala nola arrazionaltasuna, pertseberantzia edo/eta agintea, gehientsuek tradizioz emakumearekin lotu diren ezaugarriak —harmena, samurtasuna, menpetasuna...— baino ez baituzte kontuan hartzen.

Saiakera honetan, Bolenek, artetipoei buruz proposatutako ikusmolde berriaren bitartez, emakumezko errealitatearen inguruan defendatzen duen ikuspuntu integratzaile, moderno eta osokoa hartuko dugu abiapuntutzat, bai gizarteak, bai zientziak emakumezkoa islatzean darabiltzaten irizpide okerrak salatzen asmoz. Izan ere, irizpideok oztopo latza dira, senidetasunezko eta berdintasunezko gizarterantz jotzeari begira.

Olga Cardeñoso Ramírez (Barakaldo, 1970). Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Doktoa. Gaur egun, Psikologiako irakaslea da, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Bilbon, eta Bizkaiko UNEDen. Hainbat ikerketa-artikulu argitaratu ditu estatuan zein nazioartean, tratu txarrak nozitu dituzten nerabeen, gurasoen, ikasleen eta beste zenbait kolektiboren sinesmen sakonak, arazoak zuzentzeko trebetasunak eta norberaren buruarekiko elkarriketa ebaluatzeko prozesuaren inguruan, bai eta ezagutza, sentimendu eta jokabide —osangarri nahiz patologiko— horien arteko loturaren ingurukoak ere.

Une honetan, emakumeen psikologia sakonki aztertzen dihardu, ikuspuntu eklektiko eta diziplina anitzeko batez, bai adimen emozionalari buruzko korronte teoriko gaurkoenetara, bai psikoanalista berri eta argigarrietara joaz.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Justizia Sailburuordetza
Giza Eskubideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Vicesecretaría de Justicia
Dirección de Derechos Humanos

HURI-AGE
Consolider-Ingenio 2010



Deusto

Argitalpenak
Deustuko Unibertsitatea